

UZTARRIA

ZENBAKI HONEKIN BATERA

+ GUKA ALDIZKARIA

GARBIÑE LARREA

EZ GALTZEKO, EREIN




INNOVA
AZPEITIA
HORTZ KLINIKAK
Jose Artetxe 5 • 943-02 59 55



**MILAR
LARRAMENDI**

Etxetresna elektrikoak



**dyson v8
animal**

XURGAGAILUA

Lehen 399 €

Orain 349 €



dyson ETXEAK DITU MERKATUKO
XURGATZAILE ONENAK,
eta **MILAR LARRAMENDI**
BAKARRIK AURKITUKO DITUZU

Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA • 943-85 18 97 • www.milar.eus



Sansinenea Industrialdea, B2 • Zestoa
943-44 30 01

gipuzkoa@renovalan.com
www.renovalan.com

RENOVALAN



- Birgaitze energetikoak • Irisgarritasuna - Igogailuak • ITE konponketak
- Arriskuak kentzea • Urbanizazioak • Estalkiak • Diru laguntzen kudeaketa



UZTARRIA 245

2022KO URTARRILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|---|
| 5 | Iritzia Ihintza Elustondo, <i>Isiltzen digutena.</i> | 24 | Iritzia Imanol Amiano, <i>Aro Berri on!</i> |
| 6 | Zu zeu Beñat Olaizola, jatetxe baten jabea. | 25 | Lehiaketa |
| 8 | Nire leihotik Haizea Salegi, <i>Eguzkirantz.</i> | 26 | Erretratua Iñaki Alberdi auto gidaria. |
| 10 | Iritziak Luis Gurrutxaga, <i>Orgatxodun euskalduna; Txetxu Urbieto, Petrikilo emozionala.</i> | 30 | Plazan Bazan |
| 12 | Elkarrizketa Garbiñe Larrea naturopata eta iridiologoa. | 32 | Akordatzen? Hiltegi zaharra. |
| 18 | Erreportajea Jose Ramon Agirre jesulaguna. | 36 | Iritzia Ione Gurrutxaga, <i>Lana eta osasuna.</i> |
| | | 37 | Iritzi grafikoa Itziar Aranguren. |
| | | 40 | Klik! Urtearen errepasoa. |
| | | 46 | Iritziak Miel A. Elustondo, <i>kontzeptua (minuskulaz); Aintzane Garmendia, Disdirapean.</i> |

UZTARRIA

TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-15 03 58
uztarrria@uztarrria.eus
www.uztarrria.eus

Zuzendaria:

Julene Frantzesena
Erredaktoreburua:
Ihintza Elustondo
Erredaktore taldea:
Mailo Oiarzabal
Nerea Uranga
Julene Frantzesena

Maialen Etxaniz
Ihintza Elustondo
Diseinu arduraduna
Itxaro Iraeta
Publizitate arduraduna
Angel Sarasua
Zenbaki honetako
kolaboratzaileak:

Haizea Salegi
Luis Gurrutxaga
Txetxu Urbieto
Itziar Aranguren
Olatz Alkorta
Imanol Amiano
Ione Gurrutxaga
Miel A. Elustondo
Aintzane Garmendia

Arnaitz Rubio Aprea
Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-860/2000
ISSN: 1576-7337
Tirada: 2500 ale





ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

EGUZKI
belardenda
dietetika
kosmetika naturala



Kale Nagusia, 67 943-50 94 47 AZKOITIA
Urtiarle 9 bis 943-15 00 23 AZPEITIA

KIRURI



JATETXE

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 58 08
Faxa.: 943 15 03 62



CITROËN **Aiertza Autoak**
Behar duzun konfiantzazko talerari!

Marka guztietako
ibilgailuen konponketak

943-81 19 15
AZPEITIA
aiertza@aiertzaautoak.com



EuroTaller EUROTALLER MULTIMARCA ZERBITZUA

IKA argi lanak s.l.

Instalakuntza Elektrokoak

Urko: 618 96 49 95 / Jon: 649 12 02 71
ikazargilanak@gmail.com www.ikasistemak.com
20730 AZPEITIA

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO
MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Iuba
ahelkularitza

Analitikaritzak
libros
lehenak
konposak

Gestioi lanak
Finan administratibak
Gestio inmobiliariak

Tfn: 943 167 329 Faxa: 943 167 379
Eguraldi saltea: 43-41 Iuba.ahelkularitza.es



Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria Kalea, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943-15 16 40
Larrialdiak: 688 69 29 51

adi ARTE ETA
DISEINU
ESKOLA
ELKARTEA

Marraskia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00

Pintura 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30

Tallia 18:30 - 20:00

Jose Artetxe kalea, 3
943 81 20 08
arrediseinu@gmail.com
Matrícula urte osan zabalik

IRENE ALTUNA
KOMAGENDA

Loiola-Bide, 26 Tel. 943-81 51 87
www.ikomagenda.com

AZKOITIA



ERLOJU
KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

JARRI HEMEN
ZURE IRAGARKIA!



Isiltzen digutena



IHINTZA ELUSTONDO

Uztarriaren webguneak 20 urte beteko ditu hil honetan. Urte berriko ospakizunez gain, badugu zer ospatua etxe honetan. Gure aurrekoek hasitako bideari segiz, haiengandik ikasitakoari eutsiz, halaxe osatu dugu denon artean bidea. Beste hainbeste eta gehiago bete ditzala.

Informazioa jaso, haren ertz guztiak arakatu, eta berriak ahalik eta modu argiengan, kontrastatuengan, osoengan, herritarrei helaraztea; horixe da gure lana. Batzuetan gehiago asmatuko dugu, eta beste batzuetan gutxiago. Horretan ez daukat inolako zalantzarik. Baina saiatzen gara gure lana ahalik eta ondoen egiten. Are gehiago halako garai nahaspilatuetan, asko eta asko zer sinetsi, zer pentsatu ez dakitela aurkitzen direnean.

Hainbeste buru dagoen mundu honetan, gauzarik normalena da denok ados ez egotea, ikuspuntu ezberdinak izatea. Eta norberaren pentsamendua eraikitzeko bidean, zer garrantzitsua den batena eta bestearena entzutea, ondokoak ere zer esan baduela ohartzea, norberarena gordin defendatu aurretik. Gehienetan egia ez delako izaten bat eta osoa, zuria edo beltza.

"Ofizioak irakatsi dit gauzak ez direla sekula guk uste bezalakoak", zioen Koldo Aldalurrek.

Eta hitz egitea aukera bat den moduan izan daiteke isilik egotea ere. Hitzak barruan gordetzea. Isilik egoteak ez baitu esan nahi esateko ezer ez dagoenik. Hitzak isildu daitezke bakeagatik, lotsagatik edo beldurragatik. Ausardia ezagatik, askok gaur egun egiten duten bezala.

Eta isilarazi ere egin daitezke.

Aurreko batean, Iñaki Seguro eta Onintza Enbeita elkarrizketatu zituen hedabide batek, bataren *Koiteretzia* eta bestearen *Izurria* liburuak Durangoko Azokan salgai zeudelako. Elkarrizketa hartan esandakoak ezabatu zizkiotela salatu du Segurok sare sozialetan. Zehazki, honako hau dio: "Ohartzekoa da igarotako gauzak kritikatzeko libre dela (adibidez, iazko itxialdia), baina oraintxe bertan gertatzen ari dena (pase edo ziurtagiri covidiarra) gordinki salatzea ez dela libre".

Benetan diotsuet, beti pentsatu izan dudala askatasuna dela gizakiontzako oparirik ederrena; zoritxarrez, askok eta askok gozatu ezin duten baliorik behinena. Bakoitzak sinets, senti, amets, pentsa, maita dezala nahi duena, edo ahal duena, baina zentsurarik ez, mesedez.

Pentsatzen duguna esatea hain zaila bilakatu den garai honetan, gutxienez pentsa dezagun esaten digutenaz. Eta esaten uzten ez digutenaz. ■■■

**BAKOITZAK SINETS,
SENTI, MAITA DEZALA
NAHI DUENA, EDO AHAL
DUENA, BAINA
ZENTSURARIK EZ**

Beñat Olaizola: "Jendea animatzeko, egunero jotzen dut tronpeta jotetxean"

TESTUA ETA ARGAZKIA: JULENE FRANTZESENA

Ia mende laurdena darama Beñat Olaizolak (Azpeitia, 1976) Malagan (Espainia) bizitzen. Azken bost urteak Otolan jotetxea zuzentzen daramatza buru-belarri. "Euskal etxea" deitzen dio hari, euskaldun askoren elkargune ez ezik, etxeko produktuen eta euskal ohituren topagune ere badelako. Azpeitian zela hitz egin du Olaizolak Uztarriarekin.

Noiztik bizi zara Malagan?

23 urte daramatzat han bizitzen. Joan eta etorri ibili izan naiz, urteren bat Euskal Herrian ere pasatu dut tartean, baina berriz ere Andaluziara itzuli nintzen. Orain urtean bizpahiru aldiz joaten naiz etxera, Azpeitira; Gabonetan, behintzat, ziur. Elikagaiak eta garbiketarako produktuak saltzen aritu naiz urteetan, eta egia esan, Malagara oso egokituta nago.

Nolatan zabaldu zenuen Otolan jotetxea?

Jatetxeko lehengo jabea haragia saltzen nien, eta horrela ezagutu nuen lekua. Ikaragarri gustatzen zitzaidan; izan ere, egurrezko baserri zahar bat da. Jatetxea hartu nuenetik, hainbat lan –terraza muntatu, jotetxea zabaldu...– egin ditugu bertan, eta Otolan handitzen joan da zentzu guztietan: lau lagun hasi ginen lanean, eta gaur egun, hemeretzi langile gara.

Nolakoa izan da bost urteotako bidea?

Euskal Herrian lanerako beste irtenbiderik ez dagoenean jotzen dugun eremua da ostalaritza. oro har; Malagan, berriz, bizitzeko era bat da sektore hori. Askotan esan izan da andaluziarrek ez dutela lanik egiten, baina hori ez da horrela; Otolan, adibidez, ez sinesteko moduko lantaldea daukagu.

Lehenago ba al zenuen jotetxeren batean esperientziarik?

Ez. Sukaldean aritzea beti gustatu izan zait; lagunartean, soziedadean... Londresen egon nintzenean ere aritu nintzen sukalde batean lanean, baita Malagan ere. Haragia-eta saltzen

pasatu nituen urteetan, berriz, jotetxe askotako sukaldariei eman nizkien aholkuak.

Haragia da zuen jotetxeko berezitasuna, ezta?

Bai, hala da. Urteetan egin nuen lan haragiarekin, eta... Elikagai onenen aldeko apustua egin dut Otolan, Euskal Herriko produktuen aldeko apustua, eta herritarrek estimatu egiten dute hori. Izan ere, lehengaiak zaindu egin behar dira. Elikagaiez gain, ordea, oso garrantzitsua da bezeroekin duzun tratua, eta horri garrantzi handia ematen diegu.

Tronpeta jotzaile bezala ezagutzen zaituzte bezero askok...

Jendea animatzeko, egunero jotzen dut tronpeta jotetxean. 11 urterekin laga nion tronpeta jotzeari, baina giroa alaitzeko asmotan kanta bat ikasi nuen, gero beste bat, eta... Giro bikaina sortzen da orain. Goxotasuna eskaini nahi izaten diegu bezeroei, modu informalean.

Jatetxea tarteko, euskaldun asko ezagutu al duzu han?

Bai. Aurtengo udan, adibidez, azpeitiar pila bat joan dira jotetxera. Egia esan, ez da egongo jotetxera euskaldunik joaten ez den egunik. Gainera, gaur egun, hiru euskaldunek egiten dugu lan Otolan, eta hori ere aldea da. Hala eta guztiz, oso turistikoa da Costa del Sol, munduko edozein txokotako jendea bizi da han.

Euskal Herriko antzinako hainbat tresna dituzu jotetxean.

Bildumagilea al zara?

Azpeitiko hainbat tresna dauzkatz jotetxean; taloak egiteko makina, gurina egiteko barrika, segak, trontzak, laiak... Bitxikeria bat ere bai: lagun batek Azpeitiko Alberga zaharrean dauden iturrietako kareten berdina den pieza bat topatu zuen Mallorcako azoka batean, baina ezin izan zuen erosi. Mallorcan banuen lagun bat, eta hari deitu eta kareta lortzeko eskatu nion. Molde gehiago egingo zituzten nonbait, eta... Nola iritsi ote zen irudi hura Mallorcaraino! Lagun hark erosi egin zuen kareta, eta orain jotetxean izaten dut ikusgai irudia. ■




Eguzkirantz



ARGAZKIA ETA TESTUA: HAIZEA SALEGI

Salto egin eta aske bizi,
salto nondik eta nora, ordea?
Jauzi egin nahi dugu,
baina jausteko beldur gara.
Jauzi nola egin, ordea?
Ez dut behar hegan egiteko
askatasuna,
hegoak baizik.
Ez dut behar pentsatzeko
askatasuna,
pentsamendu askeak baizik.
Galde diezadakezu
eta erantzun dezaket,
salto egin eta aske bizi. ■■■







Orgatxodun euskalduna

Euskalduna apustu zale amorratua dela esan ohi da. Hemen, Urola bailaran, ezagunak eta garaian oso entzutetsuak izan zirenak ere badira; adibidez, Inazio Arregi *Etxearretak* 104 kiloko burnitzar puska bizkarrean hartu eta Eibarko tren geltokitik Urko gailurrera jokatu zuena edo Azkoitian butano bonbona hartu eta Hernioko puntara eginikoa. Gehienak kirol balentriak dira, baina beste batzuk non sailkatu? Adinez osatuta gaudenok gogoratuko dugu arkume txuleta kilo gehien jateko lehia nola antolatzen zuten Logroñon, eta ene! Partaide gehienak euskaldunak...

Historia honetako protagonista ere euskalduna dugu, eta apustuekin badu zerikusia: Guillermo Isidoro

Larregui Ugarte, Iruñeko Errotxapea auzoan 1885ean jaioa. 15 urterekin, beste milaka euskaldun bezala, lehenik Uruguaira eta gero Argentinara joan zen bizitza aurrera ateratzeko. Hainbat ogibide probatu ondoren, Patagoniako Santa Cruz probintzian ari zen lanean, petrolioia ustiatzeko enpresa amerikar batean, apustu arriskutsu eta xelebreetan xelebrena adostu zuenean, lankideekin: zeuden hiritik Buenos Airesera (3.400 km) baietz iritsi. Berak eginiko

**HAMALAU HILABETE
IGARO ZITUEN
LARREGUIK HIRIRA
IRISTEN, ZORITXAR
UGARI NOZITUZ**

gurpil bateko orgatxoan kargatu zituen ohexka, kanpin denda eta abarrak (ehun kilo pasa), eta han joan zen nafarra Patagonian barrena, hegotik iparrera. Hamalau hilabete igaro zituen Larreguik hiriburura iristen, zoritxar ugari nozituz. "Trelew hiri inguruetan jasan nituen etapa larrienak. Zero azpitik hoge gradutara iristen zen hotza. Elurretan nindoala, denboraren nozioa galtzen nuen. Ez nituen sentitzen ez eskuak, ez oinak, ezta orgatxoaren pisua ere. Jakin banekien, geldituz gero, izoztuta hilko nintzela, eta orduan azkartu egiten nuen pausoa (...)", zioen. Ez zuela etsiko jakin zutenean, haren bila joan ziren apustuko aurkariak, errukituta, eta behin eta berriro erregutu zioten itzultzeko, berarentzat zirela-

HAUXE BAI JENEROA!



eta erronkako diruak (50 peso, hilabeteko peoi soldata). Baina alfer-alferrik. Hark euskalduna zela eta bete egingo zuela hitza. Saiatua, nekaezina eta setatsua izateaz aparte, buruargia zen Larregui. Txema Urrutia kazetariak hari buruz idatzi zuen liburuan *–El vasco de la carretilla–* nabari daiteke aitzindaria izan zela kirol esponsorizazioan. Herri handietara iritsi aurretik, hango hedabideetako kazetariekin harremanetan jartzen zen, bidaiako egunerokoak kontatzeko. Gainera, aurrera jarraitzeko zer falta zuen jakinarazten zuen: alpagatak, janaria, arropa... Urtebete eta bi hilabete pasatu ondoren iritsi zen Buenos Airesera. "Euskalduna naizelako iritsi naiz", esan zuen. Garaiko kronikek diote 2.000 pertsona

batu zirela gizonari harrera egiteko. Kontua da, ordea, ez zela gehiago itzuli abiapuntura, Santa Cruz probintzira, ez jokaturako dirua jasotzera, ez bizitzera. Beste hiru bidaiari luze egin zituen bere orgatxoarekin, eta nomada bizitza hautatu zuen.

Iguazuko natur parkean kontserba latatz eginiko etxetxoan bizi izan zen hamabost urtez, 78 urterekin hil zen arte. Egunkariak eman zuten albistearen berri. Erabili zuen tresneria eta haren gauzak Lujan eta Santiago hirietako museoetan ikus daitezke. Chacabucoko Euskal Etxeak bere izena darama, baita lehen bidaiari ekin zion plazak ere.

"Ekintza zailek denbora luzea eskatzen dute, ezinezkoak pixka bat gehiago" (Andre Jackson). ■■■

HAN ETA HEMEN



TXETXU URBIETA

Petrikilo emozionala

Bikoitia, biz bete. Aitortzen dut urte bikoitiak gustuko ditudala. Ni neu ere urte bikoitian sortua naiz. Aitortzen dut, baita ere, urteen zama nabaritzen dudala. Jaio nintzen urte bikoititik biz beteriko urte honetara, bikoitiak eta bakoitiak, urte dezente pasatu dira. Azkar pasatu ere. Deabruarekin izenpetu nuen itunak, ordea, oraindik ere erdi lanetara ez naizela iritsi dio. Luzaro bizi nahi; iraun ez, bizi. Irautea gero eta merkeago dago; ondo bizitzea, inoiz baino garestiago. Nahi izatea ahal izatea dela sinetsarazi diguten aroan, neurriz kanpo nahi izatea geure galbidea bihurtzen ari delakoan nago. Jakituriak, informazioak, gizakia askeago egiten duela ere esaten dute. Ez dakit ba. Inoiz baino informazio gehiago dugu, eta inoiz baino tontoagoak garela iruditzen zait. Ezjakinek, tontoek, mundua hondatzea ez da harritzekoa. Harrigarria dena, gizaki lixtook, mundua daukagun bezala edukitzea. Nahi izateak borrokalaria egin gaitzala; jakituriak aberastu gaitzala. Egin amets, askatu burua, bizi bizitza.

P.D.: Urteko aurreneko sermoia izan da. Uztarriako pulpitotik egina. Jakituria urriko petrikilo emozionalak botata. Nahiko nuke nire nahia ulertu izana. Ahal duzu. Urte berri on. Merezi duzu. ■■■



"Gizarte honetan, osasuna ez da balio garrantzitsua"

GARBIÑE LARREA NATUROPATA ETA IRIDILOGOA

'Sendabelarrek dakitena' liburuak kaleratu du Garbiñe Larreak, 'Argia'-rekin. 45 sendabelarren inguruko informazioa bildu du lanean, eta haiek sor ditzaketen onurak nahiz kalteak zehaztu ditu. Osasun arloan autonomia bultzatzeko gida izan nahi du liburuak: "Norberak bere botikina sortzearen ideia gustatzen zait". Testua: **Ihintza Elustondo**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Sei urte daramatza Azpeitian bizitzen Garbiñe Larreak (Urnieta, Gipuzkoa, 1976). Bizitokia bertan izateaz gain, lanaren zati bat ere Azpeitian egiten du; Kiribil belar dendan egiten ditu kontsultak. Ondarroako (Bizkaia) eta Donostiako belar denda banatan ere lan egiten du. Azpeitiarra ez izanagatik, liburuak herrian oso harrera ona izan duela aitortu du. "Azpeitian aurkitu dut tokia, jendeak asko lagundu dit, eta oso harrera ona izan du liburuak. Hunkitu egin nau horrek, eta horregatik aipatu dut liburuan Azpeitian bizi naizela, nahiz eta Urnietan jaio nintzen. Babes handia sentitu dut".

Naturopata eta iridiologia zara, baina bere garaian Zuzenbidea ikasi zenuen. Noiz desbideratu zen bide hori? Halabeharrez desbideratu zen. Inoiz ez nukeen pentsatuko mundu honetan lan egingo nuenik. Beste asmo batzuk nituen, eta Zuzenbide ikasketak bukatu egin nituen. Baina gaixotu egin nintzen, eta laguntza behar izan nuen; orduan beste bide bat hasi nuen. Konturatzerako, formatzeari ekin nion, eta jendeak aholkua eskatzen zidan. Horregatik, hobeto formatzeko beharra sentitu nuen. Naturopatia ikasketak ez dira arautuak, eta beraz, ikastaro presentzial asko egin nituen. Sektorea ez dago ofizialduta, eta askotan pentsatu dut, noiz edo

noiz gure jarduna mugatu nahi duten momentua iristen baldin bada, agian zuzenbidera bueltatuko naizela. Hor dago egindako ikasketa hura. Ikasketak amaitzean, hainbat lanetan aritu nintzen –euskalgintzan urteak egin nituen, esaterako–, baina naturopatiarena beti hor egon den zerbait izan da. Orain lan dibulгатiboa egitea tokatu zait, baina urteetan isileko lana izan da. Egia esan, ikasketena xelebrea da; jendeari arraroa egiten zaio. Zera esaten didate: "Nolatan ez zara abokatu?". Badaukat izateko aukera, baina horrekin zer irabazten duzun, zer galdu, nola bizi nahi duzun... Nire buruari galdera asko egin dizkiot. Bidea hau izan baldin bada, gailendu egin delako da. Eta ez naiz batere damutu.

Formazio asko eta asko egindakoa zara: fitoterapia, naturopatia, ayurveda... ikasi duzu.

Egindako ikastaro asko eta asko ez ditut hartzen benetakotzat, desengainuak izan direlako. Gaur egun, ikastaro asko etxe komertzialek planteatzen dituzte, eta beraz, ez dira benetako formazioak, interes jakin batzuekin antolatutakoak direlako. Zoritxarrez, horrelako asko dago. Nire ustez, formazio autodidakta ez da nahikoa arlo honetan, zerbait gehiago behar da, eta homologatu egin behar dira ikasketak. Naturopatiaren federazioek borroka hori daukate. European hainbat estatuk





Larrea, liburua eskuetan duela. ARNAITZ RUBIO APREA

eman dute pausoa, eta ikasketak ofizialtzea eskatzen dugu.

Formatzea ez da oso modan dauden *online* ikastaro laburrak egitea eta pentsatzea horrekin nahikoa dela. Potentzial handiko eremua da landareena, baina kalte handia egin dezakeena ere bai. *Argiak* liburua egiteko eskaintza egin zidanean, zer eratako liburua egin nahi nuen hausnartzeko esan zidaten, eta oso garbi neukan ezin zituela hutsune batzuk eduki; hau da, albo ondorioak, toxikotasuna... agertu egin behar zirela lanean. Ematen du landareak ez daukala alde hori, eta nik beti esaten dut landarea ondo ikusi behar dela, lilurarik gabe, onerako duen indarra txarrerako ere izan dezakeelako. Zehaztapen lana egin beharra dago: landarea nola erabili, zer neurritan, nork... Gaur egun, askotan ez da ondo egiten dibulgazioa. Google automedikatzeko toki

ederra da, baina ez da toki ona sendabelarrei buruz benetako informazioa jasotzeko. Horrez gain, aintzakotzat hartzen ez diren emakumearen inguruko gai asko daude. Gu hormona ziklo baten pean egoten gara bizitzako urte askotan, baina horrek ez du existitzen sendabelarren planteamendua egitean, eta nire ustez, horrek presente egon behar du. Kezka horietatik abiatuta, fabore eske ere ibili naiz, hainbat datu kontrastatzeko. Nahiz eta liburuan nire izena jartzen duen, talde lanean egindako gauza bat dela sentitu dut.

Badago naturopatiaren eta sendabelarren munduarekiko mesfidantza gizartean; hedatuta dago zientifikoki frogatu gabea den ustea.

Bai, badago hori. Baina, aldi berean, botika batera joaten zara, eta iruditeria guztia sendabelarrean da; gainera, botiketan ere saltzen dituzte sendabelarrak. Beraz, zientifikoa izatea, ez izatea... Europako Farmacopea sendabelarretan oinarrituta egin izan da azken bost mendeetan, eta, nire ustez, sendabelarrek funtzionatzen dutela ukatzea gaia ez ezagutzea da.

Ikastaroak egiten eta formatzen urte asko daramatzazun arren, etxetik datorkizu sendabelarren munduarekiko harremana. Zer jaso duzu etxean?

Azaleko arazo asko izan nituen haurtzaro guztian, eta ikusten nuen etxean bi bando zeudela: batetik, medikuarekiko fedea zuena, eta bestetik, etxean ukendua egiten zuena. Gure amonak ere arazo nahiko larriak izan zituen azalean, eta berak asmatu zuen horiek sendatzen. Gainera, Urnietan izan zen Joxe Intxausti izeneko gizon bat, herriko petrikiloa-edo zena, eta liburuan atal bat eman diot hari; asko transmititu zuen hark. Jakintza horri bizkarra ematen ari ginen sentsazioa neukan, eta berreskuratzeko lana etxetik bertatik hasi behar zela. Inguruan banuen ondare immateriala, dokumentatu gabea, baina erabilgarritasuna duena eta bizirik dagoena.

Sendabelarrek dakitena izenburua jarri diozu liburuari. Baina zuk zer dakizu sendabelarrez?

Konturatu naiz uste baino gutxiago nekiela, eta hori ona da. Izan ere, beti esaten dut sendabelarrak biltzeko makurtu egin behar dela, eta makurtzea bada umiltzeko ekintza bat. Nik dakidanaren zati handi bat arituaren poderioz ikasi dut. Astero aurrez aurre ikusten ditut arazoak dituzten pertsonak, eta horiekin lan klinikoa egin behar da: pertsona horiei jarraipena egin behar zaie, ikusi sendabelarra hartuta nola dihoakien... Eta askotan ikusi dut oinarri teoriko batzuk zalantzan jarri



Larrea, elkarrizketaren une batean. ARNAITZ RUBIO APREA

"LANDAREA LILURARIK GABE IKUSI BEHAR DA; ONERAKO DUEN INDARRA TXARRERAKO ERE IZAN DEZAKE"

"MEDIKUNTZA TRADIZIONALAK LERRO OFIZIALEAN TXERTATU BEHAR DIRA"

"HAINBAT SENDABELAR MIRARIZKOTZAT SALDU DITUZTE; HORREK ASKO HASERRETZEN NAU"

beharra dagoela, ikusten duguna askotan ez delako oinarri teorikoarekin bateragarria. Arituaren poderioz, iruditzen zitzaidan sendabelar batzuk oso ondo ezagutzen nituela, baina oraindik ere harritu egiten naute.

45 landare sartu dituzu liburuan. Sendabelar horiek zer-nolako onurak ekar diezazkieke jendeari?

Norberak ezagutu behar ditu bere beharrak, puntu ahulak, eta behin hori eginda, jendeari esaten diot sendabelarrak biltzeko eta prestatzeko, behar horiek agertzen direnerako zenbait gauza orokor eskura izateko. Eta, hala ere, opa diot beharrik ez izatea horiek erabiltzeko. Paradoxa dirudi, baina niretzako garrantzitsua da baliabide batzuk eskura edukitzea. Lotarako arazorik ez duenak ez ditu beharko liburuan dauden zenbait erremedio, baina denoi gerta dakiguke zauri bat egitea edo kolpe bat hartzea. Ez daukagu horren kontzientziarik, baina oso zaurgarriak gara: segundo gutxitako kontua da gaixotzea edo min hartzea. Horren aurrean, niri asko gustatzen zait etxeko botikinaren ideia.

Autonomia sustatu nahi duzula esan izan duzu.

Autonomia izatea puntu batera arte da posible. Diabetikoen kasuan, esaterako, ezin da autonomia askorik landu sendabelarrekin; halako kasuetan, elikadura da funtsezkoa. Zenbait kasutan, motz gelda gaitezke, zalantzarik gabe. Baina diabetikoak zirkulazio arazoak ere izango ditu, eta horretarako izan ditzaket baliabideak nik. Autonomiaren kontua higienistei entzun nien lehen aldiz; norberak berak behar adina botika egitea bada autonomiaren ideia. Eta kosmetikoekin ere landu daiteke autonomia; ikastaroetan jendea oso gustura ikusi dut xaboia edo hortzetako oreka nola egin ikasten. Halakoen eskaera badago, eta horiek ere jaso nahi izan ditut liburuan.

Egungo gizartean, errazegi hartzen al dira botikak?

Bai eta ez. Niretzat hori ez da kritikatzekoa; horrela antolatutako gizarte batean bizi gara. Ume-umetatik oso erraza da horretara jotzea, eta gaixoaren autonomia sustatzea oso zaila izaten da. Jakintza arloak, espezializazioak, oso estankoa dira, eta ematen du zerbaitez dakienak erabat dakiela horretaz. Baina medikuak esandakoa erabat betetzen duen jendearekin ez dut inolako gatazkarik bizi; gainera, batzuetan autonomia baliatzea ere ez da posible. Hau da, norbaitek ikusmen arazo larri bat baldin badu, edo gaixotasun kroniko bat okerrera egingo duena, ezin dugu sendabelarrekin ezertxo ere egin. Beste batzuetan, aldiz, ikusten dugu botika asko behar duen pertsona bati gaitza hobeto eramaten lagun

diezaiokegula sendabelarrekin. Ez dago zuri edo beltzik. Nik sukarra baldin badaukat, parasetamol hartuko dut; ez daukat inolako zalantzarik. Askok ez dute hori ulertzen, baina nik zenbait sendabelarren infusioa hartzea baino nahiago dut aspirina bat hartzea. Naturala izateak niretzat ez du esan nahi erabat segurua denik.

Medikuntza ofiziala eta tradizionala uztartu egin behar direla uste al duzu?

Bai, behar hori dago. Eta hori ez dut nik esaten, Osasunaren Mundu Erakundeak esaten du: medikuntza tradizionalak lerro ofizialean txertatu behar direla, eta badaude hainbat herrialde dagoeneko egiten dutenak. Askotan, hain justu, aurrezaintza egiten dute medikuntza tradizionalen bidez, prebentzio lana. Gertatzen dena da hemen prebentzioak ez daukala fama onik; gaixo edo gaizki gaudenean joaten gara laguntza eske. Batzuetan berandu izan ohi da, etxeko lanak lehenago egitea komeni delako.

Zuk esandakoa da: "Nire ustez, gizarte honetan osasuna ez da balio garrantzitsu bat".

Ez, nire ustez balio garrantzitsuak beste batzuk dira. Adibidez, norbaitek erabakitzen baldin badu gaixotasun bat eduki gabe alkoholik ez edatea, epelak entzungo ditu. New Yorketik Azpeitira bizitzera etorri bazara, oso onartuta dago esatea beganoa zarela eta ez duzula edaten, baina aldamenekoari ez zaio hori egiten uzten. Osasuna lehenesteagatik hainbat erabaki hartzen badituzu, gizartean beste printzipio batzuk topatuko dituzu. Gure bizimodua ere halakoa da: hemen jendea 21:00etan edo 22:00etan iristen da etxera, eta horrela, ezin da goiz afaldu, goiz oheratu... Eta sendabelarrekin ezin dute bizi estilo desegoki bat inola ere konpentsatu. Askotan esaten diet pazienteei: "Zu anbulatorioko pilula gorriarekin zatoz, eta nik ez dizut pilula berdea emango". Hori ez da planteamendu erreala. Uste dut estimazio handiagoa daukala pintxo poteak osasunaren izenean egiten diren beste hainbat gauzak baino. Norberak bere gorputzarekin nahi duena egin behar duela esaten dugu, baina puntu batera arte onartzen dugu hori.

Osasunaz inoiz baino gehiago hitz egiten den garai honetan, zer da zuretzat osasuna?

Osasuna da denok nahiko genukeen gauza bat, baina edozein momentutan gal dezakeguna. Kinka larrian gaude beti, eta ez zaigu hala denik iruditzen, normaltasuna delako kotxea hartzen duzun bakoitzean etxera ondo iristea. Ez daukagu heriotzaren kontzientziarik ere; osasuna

galtzearen kontzientziarik ez dugu. Baina badago 30 urterekin esklerosiaren diagnostikoa jasotzen duen jendea; gauza horiek sarri ikusten ditut nik. Lehenago edo geroago, denoi tokatuko zaigu osasuna galtzea.

Zer pentsaarazten dizu gaur egun gertatzen ari denak?

Jakin izan dugu arnas aparatuko gaitzak tratatzen birika belarrarekin edo ez tul belarrarekin: katarroak, neumoniak ere hobetu daitezke... Azpeitian, duela urte batzuk, zakur ez tularen kasu batzuk izan genituen, eta asmatu genuen horiek tratatzen. Gauza da egun bizi dugunak beste dimentsio bat daukala; nik hasieran, astez aste iritzi aldatzen nuen. Gero, gaixotasuna pasatutako jendea artatzen hasitakoan, ikusten nuen gaitzaren eraginak ez zirela oso normalak. Sintoma neurologikoak izan ditu jendeak, eta ez usaimena galtzerena bakarrik; tronboak eman dizkio zenbaiti, eta hori oso ezohikoa da. Horregatik, lan asko egin behar izan dut, eta pertsona bakoitza desafio bat izan da laguntzeko garaian. Gainera, dimentsio psikologiko handia du gaitzak; norbera nahiz ingurukoak kutsatzeko beldur handia dago. Lehendik gaitzak zituztenek, berriz, okerrera egin dute, eta osasun zentroetan ez dituzte behar bezala artatu horietako batzuk, lehen arretako kontsultak telefonoz izan direlako. Hori oso gaizki eraman du jendeak, eta galera nabaritu da, diagnostikoak atzeratu egin direlako kasu askotan. Egoera horretan, aurrez inoiz sartu gabeko jendea etorri da belar dendara.

Beldurra etekin bat ateratzeko ere erabili nahi izan dute zenbaitek.

Hori beste gaitzekin ere gertatu izan da; beldurrak marketina sortzen du. Hainbat produktu, gehigarri eta sendabelar ia mirarizkotzat saldu dituzte, eta horrekin izugarri haserretzen naiz. Hori jendearen beharrez, beldurrez eta ezinez aprobetxatzea da, eta horretan oinarrituta, dirua irabazten saiatzea. Hori dela eta, ikastaroetan beti saiatu naiz jendearengan izpiritu kritikoa sustatzen, eta uste dut orain hori inoiz baino gehiago egin behar dela. Whatsapp amesgaizto bat izan da pandemia garaian, eta askok galdetu didate: "Zer belar hartuko dut COVID-19arekin?". Planteamendua ez da hori, ez dago belar bat COVID-19arentzat. Ezin dugu sinplifikatu: konplexua da landarea bera, konplexua da pertsona, konplexua da gaitza, sintomatologia... Buru hauste dezente izan dut horrekin.

Esaten duzu gauza bakoitzarentzako ez dagoela erremedio bat.



Ilena belarra du eskuetan Larreak, eta berak egindako ukendua da irudian ageri dena. ARNAITZ RUBIO APREA

Ez. Eta askok esaten didate: "Gure amonak horrela hartzen zuen sendabelar hau". Baina kontua zer da? Egungo belaunaldia askoz ere medikatuago dagoela: oso arrunta da tiroidearen pilula edo antisorgailuak hartzea, esaterako. Botikez aparte, gehigarri asko hartzen ditu jendeak bere kasa, baita sendabelarrak ere. Eta batzuetan sendabelarrekin botika horien eragina areagotzea edo ezereztea lortzen dugu. Jendeak askotan ez du horren berri, baina elkarreraginen gaineko informazioa izan beharra dago, eta ordu asko kendu dizkit liburuko atal horrek. Alderdi oso garrantzitsua iruditzen zait hori.

Elikaduraren garrantzia ere azpimarratzen duzu.

Hitzaurrean, atal bat eskaini diot horri. Izan ere, jendea oso polita iruditzen zaio sendabelarren mundua, baina askok ez dute bizi estiloa aldatu nahi. Hau da, askori berdin zaie jaten duten barazkia non ekoitzia den, nola... eta hori ez da posible. Egunean gutxienez hiru aldiz jaten dugu,

baina sendabelarra hartzea hautazkoa da; gaixo gaudenean hartzen dugu. Jateak izan beharko luke gure lehenengo botika, eta hori medikuntzaren aita izan zenak esan zuen, kristo jaio baino bost mende lehenago. Askotan esaten diot nik jendea:

"Barkatu, baina alferrik ari gara lanean ez badira oinarri batzuk aldatzen". Ez da gauza bera supermerkatu kate batean nongoak diren ez dakizun barazkiak erostea edo erosketak azokan egitea. Eta sasoi honetan, ezin da tomatea jan entsaladan: tomate landare hori, bizirik egon ahal izateko, non kultibatu da eta nola? Garbi izan behar dira hainbat ideia. Gaur egungo elikagaien industria ez da gure osasunaz kezkatuko, bere irabaziez baizik, baina badago beste aldera begiratu nahia, pentsatuz hori ez dela hain garrantzitsua. Eta ikaragarri inportantea da. Elikagaiak desegokiak direlako baldin badira digestioak txarrak, ez daukagu kamamila hartzen ibili beharrik. ■

BETI ZUREKIN

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan 24 orduz izango duzu gure zerbitzua. Solbuespenik gabe.

GIPUZKOA

943 903 450







www.bertako.eus





Soiltasunean zoriontsu

Bizitzaren hiru laurden daramatza Venezuelan bizitzen eta lanean Jose Ramon Agirre jesulagunak. Irakasle jardun du hainbat eskolatan. "Ebanjelizatzea, gizatiartzea" misio hartuta aritu dela dio. Urrian etorri zen bisitan jaioterrira, baina Venezuelara, bere egunerokora, itzultzeko amorratzen dago.

Testua: **Nerea Uranga**. Argazkiak: **Nerea Uranga eta utzitakoak**.

Venezuelan dagoenean azpeitiarra sentitzen da Jose Ramon Agirre (Azpeitia, 1937); Azpeitian dagoenean, berriz, Venezuelakoa. "Azpeitian nagoenean hango berriak jarraitzen ditut egunero Internetez, eta han naizenean, hemengoak". Urriaren erdialdean etorri zen Azpeitira bisitan, baina nahi baino gehiago luzatu zaio egonaldia, eta hil honen hondarrean du Venezuelara itzultzeko asmoa. Desiratzen dago hara joateko: "Han ditut lagunak, bizimodua...", dio.

Jaiotetxean ematen ditu Azpeitian pasatzen dituen egunak, Agirreneko etxean. "Hantxe jaio eta hazi nintzen. Zazpi anai-arreba ginen: lehen hirurak mutilak, laugarrena da neska bakarra, eta hiru txikienetan ni naiz zaharrena". Lehen jaunartzea egin arte Miserikordian ikasi zuen, mojekin, eta segidan, maristetan. Batxilergoa ikastera Xabiererra (Nafarroa) joan zen, eta 1954an itzuli zen herrira, nobiziotza egitera, Loiolar. "Garai hartan, nobizioak egoten ziren Loiolan; asko ginen. Handik batzuk Indiara joaten ziren gero; guri, baina, boluntario Venezuelara joatea eskaini ziguten". 1955eko martxoan joan zen aurrenekoz Caracasera; ez zen han betiko gelditzekotan joan, batera eta bestera ibili baitzen ondorengo urteetan. Eta ordutik bisitara besterik ez da etorri jaioterrira.

Ikasketak, Hego Amerika eta Europa artean

Caracasen urtebete inguru egin eta gero, Agirre Bogotara joan zen Filosofia ikastera. "Kolonbian Pinilla [Gustavo Rojas Pinilla diktadorea] zegoen agintean, eta gerrilla oso gogor aritzen zen". Ikasketak bukatu orduko, Venezuelara itzuli zen; Meridan egin zituen bi urte, eta urtebete Maracaibon. Handik Espainiara joan zen Teologia ikastera, Burgosko Oñara. "1966an ordenatu ninduten apaiz". Tartean, beste urtebete Belgikan egin zuen, eta handik proiektu bat esku artean zuela itzuli zen Venezuelara; gaur arte.

1969ko irailean Agirrek eta beste hiru jesulagunek esperientzia berri bat hasi zuten Caracasko Antimano auzotegian. "Herria eta herritarren egunerokoa hobeto ezagutzeko, integratzeko, hangoen gisan bizitzea erabaki genuen. Horretarako, pasta ekoizten zuten lantegi batean hasi ginen lanean; niri gazta eta gurina egiten ziren sailean jardutea egokitu zitzaidan. Baina urtebete besterik ez nuen egin, irakasle aritzeko Maracaibora joateko agindu zidatelako". Zazpi urtez, hiri haren kanpoaldeko auzo apal batean jardun zuen, Sebastian Altuna *Kanpaxa* jesulagun azpeitiarrarekin batera: "Auzo txiroa zen, baina niri inoiz ez zait gustatu auzo txiroak direla esatea, auzo *popularrak* direla diot nik". Bizi izan den tokietan bertako herritarrekin eta haien egunerokoarekin bat egitea gustatu izan zaio Agirreri, haietako bat balitz bezala bizitzea; hori garbi du. "Auzoko



Goiko bost argazkietan, Amanoziako Ye'kwana herri indigenakoak janaria prestatzen, *conuco*etara joateko txalupetan ibaia zeharkatzen, herriko etxolak eta *conucoa* garbitzen. Beheko argazkian, Yanomamien herrira egindako bidaian. JOSE RAMON AGIRRE

etxeren batera joan eta haietako bat bezala aurkeztu eta hartu nautenean sentitu izan naiz zoriontsu benetan".

Amazonian, Ye'kwanak herri indigenarekin

Caracas utzi eta Amazoniara joateko eskaera egin zien Agirrek haren arduradunei, 1982. urtean. "Amazonia pixka bat ezagutzen nuen ordurako, eta gustuko nuen lurralde hura". Eskatu eta eman. Venezuelako hiriburutik ordubete eta hamar minutura dagoen herrixka indigena batera joan zen Agirre abionetan: Amazonasen ibaiadar baten ertzean dagoen Ye'kwana herrira. "Bakarrik joan nintzen hara; Zulaika jesulaguna zortzi bat kilometrora zegoen, sanemekin".

Zein zen Agirreren egitekoa han? "Jesulagunon funtzioa herriaren garapenean laguntzea zen, gizatiartuz herriaren garapenean laguntzea delako ebanjelizazio onena. Ebanjelizazio tradizionalik ez genuen egiten han; alegia, ez genuen elizarik edota tenplurik, ez genuen bataiorik egiten, ez mezarik ematen... Etorri izan zitzaizkidan zerbitzu militarra egindako gizonak bataiatuko al nituen galdezka, eta horrelakorik ez genuela egiten esaten nien. 'Izan zaitez ye'kuwana on bat, jainkoak zu hori izatea nahi duelako', erantzuten nien. Bakoitzak sinesten duen hori izan behar du, baina zintzoa. Hori da gizakioi falta zaiguna gaur egun: sinemenaren eta bizitzaren arteko koherentzia". Garai hartan, Amazoniako herri indigenei, nekazal herri izateaz gainera, ganaduzale izateko pausoa ematen lagundu zieten jesulagunek: "Lautada ikaragarriak zituzten han, eta lurra ereiten jarraitzearekin batera, ganadua izan zezaten lagundu genien. Egitasmo hari esker, Venezuelako Gobernuak 50 bufalo oparitu zizkien, eta sabanan 300 buruko behi-azienda izatera iritsi ziren".

Agirreren egiteko nagusia, ordea, hango eskolan oinarritzen zen. "Txuloata [etxola] indigena bat zen eskola, 20 metro inguruko diametrokoa eta sabai konikoarekin. 400 biztanleko herri bat izanda, 120-140 ikasle genituen". Eskolak emateko ez zuten baliabiderik, ez materialik; beraz, sormena astinduta irakasten zituen Venezuelako historia, matematika, marrazketa eta irakurketa-idazketa. "Banuen liburuxka bat ye'kwanako esaldi batzuekin, baina hura lantzea bukatu nuenean, haien eguneroko ohiturei eta egitekoei heldu nien irakasten jarraitzeko. Alegia, *conucora* joaten ginen, eta hango zereginak, fruituak nahiz barazkiak behatuz ematen genituen irakasgaiak. Zer da *conuco*? Familia bakoitzari oihanean lur zati bat egokitzen zaio ereiteko. Zuhaitzak bota, eta ereiteko prest uzten dute lur zatia: juka edo manioka mingotsa, azukre kanabera, bananondoa... landatzen dituzte batik bat. *Conuco*ak oso garrantzitsuak dira haientzat, eta asko zaintzen dituzte. Igandeetan, familia bakoitza bere *conucora* joan ohi da eguna pasatzera. Ni noiz edo noiz joan nintzen familia batekin edo bestearekin, baina gehienetan etxean gelditzen nintzen, familien intimitatea errespetatzeko".

**"BIZITZAN,
SINPLETASUNA
ZORIONTASUNA DELA
IKASI NUEN YE'KWANA
HERRIAREKIN"**

**"ELIZAREN MISIOA
ELKARTZEA DA, ETA
ZUBIAK ERAIKI BEHAR
DIRA ALDE
DESBERDINEN ARTEAN"**



Lau urte pasatu zituen ye'kwanekin Agirrek: "Lau urte zoriontsu". Irakasteaz gainera, asko ikasi zuen haiekin. "Bizitzan soiltasuna zoriontasuna dela ikasi nuen ye'kwanekin. Argindarra ordu bakar batez izaten genuen egunero, eta ura errekatik hartzen genuen, baina oso pozik bizi izan nintzen han. Arazorik gabeko bizitza zen hangoa; atsedena hartu nuen han. Unean-unean dagoenarekin bizitzen irakatsi zidaten".

Jesulagunek Amazonian zuten proiektua bukatu eta Caracasera itzuli behar izan zuen Agirrek. "Herria proiektua bere kabuz aurrera eramateko prest zegoen ordurako, eta guk haien esku utzi genuen guztia". Agurrean, hango belar batzuekin betetako zintzilikario bat oparitu zioten ye'kwanek Agirrerri; ordutik ez du kendu, soinean darama lepotik zintzilik. "Opari eman zidanak hala esan zidan: 'Zoazen lekura zoazela, zoriontasuna eta bakea eraman ditzazun oparitzen dizut hau'", gogoratu du unea, hunkituta.

35 urtez Jesus Obrero institutu teknikoan

Amazoniatik bueltan eta erretiroa hartu arte –hamalau urte dira erretiratu zela–, Caracasko Antimano auzotegiko Jesus Obrero institutu teknikoan jardun zuen irakasle azpeitiarrak; 35 urtez, hain justu. "Catian sortu zuten eskola hori, bertako jendeari lana aurkitzeko eta bizimodua aurrera ateratzeko erremintak eskaintzeko. Lehen apaiz asko geunden irakasle eskola hartan, baina gaur egun ni bakarrik bizi naiz han, eta erretiroa hartuta nago. Egungo eskolako arduradun eta irakasle denak sekularrak dira".

Venezuelako Kulturaren Historia irakatsi zuen han Agirrek. "Liburuko gaiak zorrotz jarraitu gabe, neuk antolatu nuen gaitegia. Esaterako, Historiaurrea azaltzeko, ez nintzen kobazuloetan bizi ziren gizakiez aritzen, han ez daudelako kobazuloak. Hango indigena primitiboenak yanomamiak dira, eta haien kultura irakasten nuen. Haiek ezagutzeko aukera ere izan nuen, Migel Anjel eta Susana ilobekin hamabost egun pasatzera joanda. Neolitikoa irakasteko, berriz, Ye'kwana herria jartzen nuen adibide gisa. Eta era horretan lantzen nituen garai desberdinak". Irakasle ona izateko, ikasgaiak irakaslearen gustukoa izan behar du, Agirrerren iritziz. "Norberak gustuko ez duena ezin die besteei transmititu. Nik gozatu egin dut irakasten".

Jesulaguna izanda, espiritualitate arloa ere landu du Agirrek. Misiolaria al den galdetuta, honakoa dio: "Misiolaria naiz, misio bat dudalako. Ez naiz, ordea, erlijio katolikoa ezartzera doan misiolaria. Nire misioa ebanjelizatzea da, gizatiartzea; irakastea, gaixoak artatzea, jaten ematea... Denok gara jainkoaren seme-alabak, denok gara anai-arrebak. Frantzisko aita santuak behin eta berriro nabarmentzen du hori dena. Elizaren misioa elkartzea da, ez sakabanatzea. Zubiak eraiki behar dira gu eta indigenen artean, gu eta musulmanen artean, berdin pentsatzen ez dugunon artean. Zubi batean bi aldeek dute garrantzia; alde batek huts egiten badu, baita besteak ere. Itxita ezin dugu egon, Elizak ere irekia izan behar du". ■



IRAURGI

Ikastetxea

Matrikulazioa urtarrilak 17-28

Bisita pertsonalizatuetarako zain gaituzue!

943810210 - iraurgi@iraurgi.com

Txikitatik mundua eraldatzen



Aro Berri on!



IMANOL AMIANO

Bi urte berehalaxe beteko dira pandemiak Europako lehen agerraldia Bergamon egin zuenetik. Gure katolikotasuna aprobetxatuz, hara joatekoak ginen duela bi Aste Santu; beharbada dagoeneko txartelak hartuta genituelako, primeran gogoratzen ditut orduko irudiak: ospitaletako kaosa eta militarrek kamioietan hilkutxak garraiatzen -4.500 pertsona, heldu zein gazte, hil ziren han 2020ko martxoko lehen hiru asteetan!-. "Ba, hori Aste Santurako pasatuko duk", esaten nion neure buruari. Kaka zaharra. Bidaia atzeratu eta atzeratu, azkenean, gure espainiartasuna baliatuz, etxeok Lombardiako hiri eder horretan izan gara abenduko zubi konstituzionalean. Mundu guztiak zeraman *maschereta* jantzita, baita aire librean ere, eta COVID pasaportea ezinbestekoa zen edonon sartzeko; txantxa gutxi horrekin han!

Zeru urdina, ezin urdinagorik, eta hotza, arraioa, baina atzean utzi genuena utzita, hori zen gutxienekoa. Ederki pasatu genuen -bidaiaren detaileak, pribatuan-, eta majo despejatuta, buelta. Kotxea hartu eta, Mordorren sartzearekin batera -Ocho

apellidos vascos-eko eszena hura bera zirudien-, irratian entzunikoarekin inpaktatuta geratu nintzen: Jose Ignacio Munilla gure gotzaina Alacantera bidali dute ardiak zaintzera (guirra izeneko arraza desagertzeko zorian dagoelako, agian?).

Sekulako disgustua daukat. Horrela ari dira gure oinarriak ahultzen; zer izango da hurrengoa, Konstituzioaren eta Aste Santuaren partez Euskararen Eguna eta Zinemaldiko Astea jai egitea? Idiazabalgo gaztaren Eguna eta Tourreko Pirinioetako Astea? Beharbada, Mediterraneoko ardiek Kantauriko ardi latxek baino gehiago beharko dute artzaina, baina *ora pro nobis*, Josinazio! Halako burutazioak nerabiltzala, argia ikusi nuen; beno, bideo bat. Gure Joxemairena. Eta solte nituen kableak lotu ahal izan ditut.

Nik garai hartan ez nekien arren, badira ia bi urte nire barne-egitura elektrikoa eraldatzeko beharra sentitu nuela; baina, ziur aski, ikusita

**DERRIGORREZKO
PASAPORTE BAKARRA
ABITAINERAKOA DA,
ETA DENOK ATERAKO
DUGU HORI**

nola dabiltzan gremioak, barneko energia-lerroak txertoen bidez eguneratzea pentsatuko nuen. Horrela, Joxemaik dioenez, AstraZeneca hartzea erabakiko nuen lehenbizi, antza, sistema emozionala egituratzeko. Baina badakizu, irakurle, lehenak bigarrena dakar, eta, behin kobrezko lerroak aktibatuta, sistema mentala eta sinesmenena ere eguneratu nahi omen nituen: Pfizer txute bat hartu nuen. Nola aktibatu zilarrezko eta urrezko lerroak! Ezta Iraurgiko mutilen igoerarekin ere halakorik!

Orain hirugarrenaren zain nago. Johnson & Johnsonena izan dadila nahi dut, sistema fisikoa eraldatzeko (dopin ote sansilbestrean?). Badakit batzuek ez duzuela txertatu beharrik sentitzen Aro Berri honi aurre egiteko, salto globala barneratuta daukazuelako, berez, baina ez dakizue ondo zer galtzen ari zareten. Ni inor ezertara derrigortzearen aurka nago: izan txertatzera, izan pasaportea ateratzera (baita Espainiakoa bada ere). Derrigorreko pasaporte bakarra Abitainerakoa da, eta denok aterako dugu hori, baina hobe geroago lehenago baino. Bitartean, saiatu ingurukoak gehiegi ez izzoratzen. Eta Aro Berri on! ■

9.ZENBAKIA-2022-URTARRILA

GUKA



MIKEL KAZALIS ETA XABIER LIZASO

**MUSIKAK
BIZI DITU**



Euskararen plaza gara,
herriaren irudia eta
komunitatearen ahotsa



**HEDABIDEKIN
ERE BAI**

PRESENTZIA HANDIAK



IÑIGO GAITON

Klarinete eskolak hartzen ari nintzen batean, 6 urterekin-edo, ikasgelako atea jo zuten. Musika eskolako zuzendaria zen, eta nire orduko irakasleari, Anari, enkarguren bat eman nahi zion. Instrumentua jotzeari laga nion une batez, bi helduek haien kontuez hitz egin zezaten.

Agurtu aurretik, niri zuzendu zidan begiratua zuzendariak. Xabier Lizaso zen. "Iñigo, animatuko al haiz Gabonetako oporren aurretik emango dugun kontzertuan jotzera?", galdegin zidan era adeitsuan. Aste gutxiren bueltan, oso urduri eta tripak lehertu beharrean, jendaurreko nire lehen emanaldia jo nuen Elizan, gainontzeko ikaskide eta gurasoen aurrean.

Hamahiru urte beranduago, 19rekin, eta orduan ere abenduan, beste mota bateko kontzertu batean bilatu nuen nire burua: Elizan beharrean, sanikolasetan Orioko moilan jartzen zuten txosnan; klarinetearekin

aspertuta, eskuetan gitarra elektrikoa nuen ordurako. Arrautz Ustelak taldearekin, Anestesiaren telonero izateko aukera izan genuen. Jendetza bildu zen karpa txuriaren azpian (haien jarraitzaile sutsuak gehienak, jakina) eta, lanbro artean, nahastuta gogoratzen ditut oholtzan izandako bizipenak. Mikel Kazalisen Marshall mitikoaren aurrean jo nuen, oso urduri eta tripak lehertu beharrean orduan ere.

Azaldutako esperientzietan, biei errespetu handia zor zitzaiei iruditu zitzaidan. Lizaso herritik ezagutzen nuen, eta ordurako banekien nazioartean ibilitako pianojolea zela. Elizan organoa jotzen ere ikusi izan nuen inoiz, eta umeon begietatik erreparatuta, musika eskolako zuzendaria zela jakiteak

Musikarekiko gaztetako pasio eta grina bera mantentzen dituzte Lizasok eta Kazalisek

ere ematen zion aparteko se-riotasun puntu bat. Ez zen edonor.

Kazalisen kasuan, txosnetako kontzertuetan ikusi nuen zuzenean aurrenekoz, eta eszenatokiko animalia bat zen: bere itxura, gitarra jotzeko estilo indartsua, Anestesiaren soinu basatia... Publikoa erotu beharrean jarri zuten, eta nahasmen haren erdian bizitzeko jaioa zirudien berak. Gainera, ordurako asko miresten nuen Negu Gorriakekin egina zuena.

Bi musikariak parean eta pareko jartzeko aukera eman dit ofizioak orain. Berriketaldi ederra izan genuen elkarrekin, eta biek argi laga zuten: musikarekiko gaztetako pasio bera mantentzen dute oraindik ere. Partitura klasiko bat ikasten bi urtetik gora daramatzala aitortu zigun batek; Anestesiarekin oholtzara igotzeko amorratzen dagoela, besteak.

Umetan eta gaztetan iruditu zitzaidan bezalaxe, biek presentzia handiak izaten jarraitzen dute niretzat. ■

Argitaratzailea: Urolako Komunikazio Taldea
Zuzendaria: Onintza Lete Arrieta
Tirada: 4.700 ale



Enpresa laguntzailea:

DOMUSA
T E K N I K

MUSIKAREN HANDITASUNAK HARRAPATUTA

Xabier Lizaso eta Mikel Kazalis

Euskal rock giroa zertxobait ezagutzen duenarentzat, Mikel Kazalisek ez du aurkezpenik behar. Besteak beste, Negu Gorriak eta Kuraia taldeetan ibilia da zarautzarra, eta egun, oholtza gainean jarraitzen du Anestesiarekin. Beste giro batean, baina musikarekiko pasio berarekin, Xabier Lizasok pianoari lotuta egin du ibilbidea. Kontzertuak emateaz gain, oriotarrak urteak egin ditu musikaren dibulgazioan eta ikerkuntzan murgilduta, Do Re Ni proiektuarekin. Aurretik ez zuten elkarren berri; elkarriketan gurutzatu dira haien bideak.

Testua: **Iñigo Gaiton**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Xabier Lizasok (Orio, 1965) eta Mikel Kazalisek (Zarautz, 1968) musika dute bizigai. Nota, kontzertu, melodia eta entseguen artean egiten dute eguneroko bizitza, baina esan daiteke, kontrako muturretan dauden lurralde, eremu edo atmosferetako animaliak direla. Horren froga dira bien gustuak, influentziak eta hiru hamarkadatik gora pilatu dituzten esperientziak. Modu batera edo bestera, musikarekiko sentitzen duten grina zabaltzen dihardute biek; haiekin bi hitz egitea nahikoa da musikak gorputz osoa zeharkatzen diela jabetzeko. Indar beraren eroaleak dira biak. Orioko Arraunetxen

zehaztu da zita, eta logistika kontuak tarteko, areto nagusian beharrean aulki mugikorreko ontzi horien artean egin da elkarriketa. Benetan kurioa da biek han osatzen duten argazkia.

Mikel eta Xabier, ibilbide luzeko musikariak zarete biok. Ba al zenuten elkarren berri hemen elkartu aurretik?

Xabier Lizaso: Ez. Lehen egon gara pixka bat berriketan, eta plazer handia izan da Mikel ezagutzea.

Mikel Kazalis: Niretzat ere bai. Aurretik ez nuen Xabierren berririk. Hona etortzeko proposame-



na jaso ondoren, Interneten bere erreferentziei begira ibili nintzen, eta kikildu ere bai pixka bat; maila handiko musikaria jarri didazue ondoan!

30 urtetik gorako esperientzia duzue biok musika munduan, bakoitzak bere esparruan. Rock giroan ezaguna zara, Mikel, eta Xabier, zu, berriz, musika klasikoaren mundutik zatoz. Atzera salto eginda, haurtzarora, nola hurreratu zineten musikara?

M.K.: Ni, adibidez, musika entzuten hasi nintzen jotzen baino lehenago. Egia esan, etxean beti izan genuen musika giroa, aita oso zalea baitzen. Biniloen primerako bilduma du. Konpositore klasikoak eta blues-a entzuten ziren etxean. Gero, arrebak hasi ziren Beatles, John Mayall, Suzi Quatro, Supertramp eta halakoak entzuten, eta hori ere jaso nuen.

Koskortu ahala, aitzak denak sartu gintuen musika eskolan, eta solfeo eta piano eskolak jaso nituen bizpahiru urtez. Egia esan, ez zen izan ilusio berezia egin zidan zerbait, aitaren nahia izan zen gehiago. Aurrerago, 16 urterekin hasi nintzen lagunekin elkartzen eta rocka jotzen.

X.L.: Nigan ere aitaren influentzia handia izan zen. Don Santiago Azurzarekin hasi zen musika ikasten gure aita umetan, Orioko elizan. Urte batzuk aurrerago, aitzak eta Orioko beste bi lagunek lan handia egin zuten, herriko jende gehiagok ere musika ikasteko aukera izan zezan. Ofizioz erlojugilea izan arren, musikari ordu asko eman dizkio aitzak betidanik.

Haurra nintzela, etxean ez genuen musika asko entzuten, baina aita partiturak idazten (abestien moldaketak egiten) eta pianoa jotzen ikusten nuen. Ni jaio aurretik, herriko otxote bat zuzendu zuen, eta Benito Lertxundi ere askotan izaten zen gure etxean. Horrez gain, amak askotan jartzen zuen irratia, eta Benitoren kantak entzuten ziren tarteka. Etxeko giro hark eragin handia izan zuen nigan.

Noiz sentitu zenuten zuen ordu, indar eta ametsak musikara bideratzeko bulkada?

X.L.: Umetan, etxeko pianoa modu autodidak-tan jotzen hasi nintzen. Elizako kantuak eta Benitoren abestien melodiak ikasten nituen nire kabuz. 7 urterekin, abestiak bi eskutara jotzeko gaitasuna nuen. 15 urte-edo izango nituen,

pianoko goi mailako ikasketak egin nahi nituela erabaki nuenean, pianojolea izateko ametsarekin.

M.K.: The Rolling Stones, Status Quo edo AC DC deskubritutakoan sartu zitzaidan arra niri. Rockero haien estetika, gitarra soinu zikin hura... 13 urte betetzerako rockeroa nintzen ni ere. Larruzko txupak erabiltzen genituen, ile luzea, galtza estuak... 13 urtetik 16ra bitarteko tarteak musika mota hori entzuten eta talde bat sortzearekin amesten pasatu genuen. Nire lagun batek gitarra jotzen zekien, eta nik pianoa. Rock talde askok pianoa ere bazutenez, nire instrumentua hori izango zela adostu genuen, baina azkenean, neure kabuz, baxua jotzen ikasi nuen.

Modu batera edo bestera, biok duzue oinarri akademikoa. Gaur egun, oraindik ere, musika ikastera musika eskoletara jo edo ez erabakitzeak zalantza asko sortzen ditu jendearengan. Kasu askotan, gurasoek izaten dute galdera hori, seme-alabengan pentsatuz. Zer iritzi duzue?

M.K.: Askotan egin dut gai horren inguruko hausnarketa. Gitarra eskola bat bera ere ez dut jaso nik, eta urte piloa daramatzat jende askoren aurrean kontzertuak ematen. Hiru akordeekin abesti txukunak egin daitezkeela ikasi nuen R.A.M.O.N.E.S. taldearekin, eta nire kasuan,

"Etxean umetan bizitako giroak bultzatu ninduen musika munduan murgiltzera"

"Musikak beste ezer baino gehiago aktibatzen du gure burmuina, lan handia ematen dio"

"Ez dugu benetan ezagutzen musikaren potentziala, uste duguna baino handiagoa da"

Xabier Lizaso



autodidakta izan naiz instrumentuarekin. Eskolak jaso izan banitu, gauza asko hobeto ikasiko nituzkeen, zalantzarik gabe, baina nire kabuz ibili izanak, gitarra jotzeko estilo propio bat garatzen eta soinu bat izaten lagundu dit.

X.L.: Ni, berriz, oso ondo egokitu nintzen kontserbatorioko dinamikara. Jende askok utzi egiten zituen goi mailako piano ikasketak, baina ez dakit zergatik, nik aurrera egin nuen. Pentsa, lehen urtean, 200 bat ikasle izango ginen Donostian, eta laugarrenean, 30. Auto-re klasikoen partiturak jotzen ikasi nuen, eta ikaragarri gustatu zitzaizkidan Bach eta Chopin. Ordu asko sartu behar dira haien piezak ondo jotzeko, baina egia esan, haien musika ulertzea naturala egin zait.

Galderari zuzenean erantzunez, arrazoi hau nahikoa iruditzen zait umeak musika ikastera animatzeko: erresonantzia magnetikoetan argi ikusten denez, musikak garunari beste ezerk baino lan gehiago ematen dio. Hau da, musikak onurak sortzen ditu haurren garapen integralean. Gero, noski, badaude gozamenak eta abar. **M.K.:** Ados nago Xabierrek dioenarekin. Modu inkontzientean bada ere, umetan solfeoa eta pianoa ikasi izana baliagarri izan zitzaizkidan gero baxua edo gitarra modu autodidaktan ikasteko. Ez ziren alferrikakoak izan urte haiek, hala da.

X.L.: Dena den, ume bat musika eskolara bidaltzearen helburuak ez du izan behar partitura konplexuak jotzen ikastea, edo instrumentu batekin trebezia handia hartzea. Inportantea iruditzen zait musikarekiko dugun kontzeptua aldatzea, desikastea, musika delako guk orain arte pentsatu duguna baino zerbait askoz handiagoa. Ez gara ohartzen benetan duen dimentsioaz. Sekulako tresna da edozertarako; lagun dezake terapian, lagun dezake hizkuntzak ikasten, ingeniari edo kirolari hobea izaten. Norberaren garapenari laguntzen dio.

Zuen ibilbideak kontuan izanik, bi kontzepturi buruz galdegin nahi dizuet: diziplinari eta gozamenari buruz. Mundu akademikora lotzen da askotan diziiplina, baina Mikel, Negu Gorriakekin edo Anestesiarekin egingakoa kontuan hartuta, lan handia egongo da atzean; ziurrenik, jende askok rockarekin

lotzen ez duen lan, konstantzia edo dedikazio bat.

M.K.: Bai, noski. Anestesia bada adibide on bat. Musika gogorra da, eta zenbaitentzat zaratara bakarrik izango da. Lehen entzunaldian sinplea eman dezakeen arren, jotzerako garaian exijentea da oso, zehaztasun handia eskatzen duelako. Abesti batzuk oso azkarrak dira, eta astero entsegurik egiten ez badugu, akabo! Ez dugu funtzionatzen.

X.L.: Kirolarien modukoak gara. Futbol talde batek entrenatzen ez badu, agur... Taldekideen bat aldatuz gero ere, taldea hankaz gora jar daiteke.

M.K.: Gure kasuan, duela 30 urteko kide berak izaten jarraitzen dugu. Jo eta jo ibili behar dugu, sasoi edo bizitasun hori mantentzeko; adinean aurrera egin ahala, gero eta gehiago. Exijentzia ere handiagoa da. 20 urterekin, ez genion garrantzi handirik ematen hobeto edo okerrago jotzeari, baina orain bai.

Bestalde, soinu teknikari ere lan egiten dut, eta esperientziak argi erakutsi dit: talde batek soinu ona izan nahi badu, taldekideek eman behar dute %90. Alegia, ondo jotzea oso garrantzitsua da. Gero, ehuneko beste hamarra, soinu teknikariak edo baliabide teknikoek hobe

"Kontzertuak emateagatik dirua irabaztea oparia da, baina ondo pasatzea dago oinarrian"

"Musika komunikaziorako tresna izugarria da, emozioak astintzen ditu"

"Katarsiak sortzen dira kontzertu askotan, terapia funtzioa betetzen dute emanaldiek guretzat"

Mikel Kazalis





dezakete, baina lehenetsi behar da ondo jotzea, garrantzia eman behar zaio horri. Horrela esanda erraza dirudi, baina ez da beti betetzen, horrek lana eta dedikazioa eskatzen baititu.

X.L.: Bat nator Mikelek dioenarekin. Begira, oraintxe, bi urte eta hiru hilabete daramatzat Ravelek sortutako pieza bat ikasten: *Gaspard de la nuit*. Bere helburua zen munduko piano pieza zailenetakoa sortzea, eta oso exijentea da; sasoiko egotea eskatzen dio musikariari, puntu-puntuan. Hil baino lehen ondo jotzen ikasi nahiko nuke! Kar-kar-kar...

Hainbeste entsegu eta praktika orduren atzean, gozamenak behar du oinarria derrigorrean.

M.K.: Ondo pasatzea izaten da Anestesiako taldekideekin elkartzeko motibazio nagusia. Ikaragarri gozatzen dugu entseguetan egiten ditugun orduetan. Pandemiaren ondorioz kontzertu dezente geratu zitzaizkigun bertan behera, baina lokalean elkartzeko jarraitu genuen, hori delako gure pasioa eta gehien gustatzen zaiguna. Zorionez, gaur egun ordaindu egiten

digute kontzertuak emateagatik, kontratazioak ditugu, eta hori opari handia da. Hala ere, jendaurrean jotzeko aukerarik izango ez bage-nu ere, sortzen jarraituko genuke; funtsean, gozamina delako mugitzen gaituena.

X.L.: Sekretua hori da, ez dago besterik.

M.K.: Zeure buruarentzako jo behar duzu musika aurrena, asko sinetsi behar duzu jotzen duzun horretan. Bestela, kantuak ezingo dituzu ondo defendatu publikoaren aurrean, eta jendeari ez diozu ezer transmitituko. Barrutik kanpora doan prozesua da. Askotan esaten dut ni oso berekoa naizela, musika neuretzat sortzen dudalako, beste inori gustatuko zaion edo ez pentsatu gabe.

Xabier, askotan aipatzen duzu neurologoek esaten dutela musikak beste ezerk baino gehiago aktibatzen duela burmuina. Rock kontzertu batean sortzen den giroa horren isla garbia da: jendearen saltoak, builak, eromena...

M.K.: Katarsien moduko fenomenoak sortzen dira kontzertuetan. Halako une askoren lekuko izan naiz, eta neuk ere sentitu ditut. Terapiari moduko zerbait bihurtzen dira kontzertuak, bai publikoarentzat, bai musikariontzat. Nire barruko deabruak eta egonezinak oholtza gainean askatzen ditut ondoen, eta publikoarengan ere ikusten da gauza bera. Aste osoa lanean pasatu duen pertsona batek, kontzertu batean aukera du barruan pilatutako tentsioa askatze-ko. Ederra da.

Alde horretatik, gure ofizioa oso esker onekoa dela azpimarratu nahi nuke. Igeltsero edo arotz batek bere lana ondo egiten duenean, inor ez zaio hurreratzen "onena haiz" eta halakoak modu sutsuan esatera. Guk abestien bidez jendearen emozioak astintzen ditugu, eta bueltan txaloak, ohituak eta esker oneko hitz ugari jasotzen dugu.

Piano emanaldietan, beste modu batera, baina izango dira halako katarsiak ere, Xabier.

X.L.: Bai, zalantzarik gabe, esentzia bera da, beste modu batera gorpuztu arren. Mikelek kontatu duenaren antzeko esperientziak bizi izan ditut Donostiako Kursaal edo Varsovia-ko (Polonia) areto batean. Izan ere, rocka izan, folka, edo musika klasikoa, musika sentimenduak eragiteko tresna aparta da. Benito Lertxundi-

rekin askotan hartzen dut kafea, eta bion musika egiteko modua eta esparrua desberdinak izan arren, musikarekiko behar eta nahi berak ditugu, funtsean, musikak bizi gaituelako biok, Mikel bezalaxe.

Zure ibilbidean bada aldaketa nabarmen bat, Xabier. Musika helburu izatetik pertsona xede hartzera pasatu zinen, sarri nabarmendu izan duzunez. Nola eman zen aldaketa?

X.L.: Ez zen nahita bilatutako zerbait izan. Nire gaztetako ametsa kontzertu handiak ematea zen, jende askoren aurrean, Mikelek lortu duen bezala. Ez zen hori gertatu, eta emanaldi xumeak egiten jarri ninduen. Aldi berean, familia bat ere banuen ordurako, eta diru sarrerak behar ziren etxean. Urte batzuk lehenago, Polonian ikasketak egiten ari nintzela, ikusi nuen nire ikaskideek hurrekin saioak egiten zituztela ikastetxeetan-eta. Ideia hori oinarri hartuta, Euskal Herrian gauza bera egiten hasi nintzen, pianoa furgonetan sartu eta batera eta bestera.

Hasieran gogoz kontra ekin nion ikastetxeetako lanari, egia aitortu behar bada. Bi urte pasatutakoan hasi nintzen hurrekin ondo pasatzen eta gozatzen, eta aldaketa bat sumatzen hasi nintzen: eskoletako esperientziek erakutsi zidaten musikak indar ikaragarria duela umeengan. Eskola ia denetan daude heziketa bereziko ikasleak, eta haiengan batez ere, musikak erreakzio harrigarriak sortzen dituela ikusi nuen. Kasu batzuetan, miresgarriak ere bai.

Bateren bat kontatzerik bai?

X.L.: Ikastetxe batean, eskolan behin ere hitz egin ez zuen ikasle bat zegoen, 5 urtekoa. Behar bereziak zituen. Azken ariketa bezala, ikasleei proposatu nien begiak itxeko eta pianoa entzuteko, gero sentitu zutena azal zezaten. Bada, ume hark, hitz egiten hasi eta azalpenak eman zituen. Malkotan ikusi nuen irakaslea; harrigarria izan zen. Halako bizipenak bat baino gehiago izan dira, eta askotan galdetu izan diot neure buruari: zer ote du musikak jendearen burmuinean halako erreakzioak eragiteko?

M.K.: Xabierrek hartu duen bidea txalogarria dela iruditzen zait, eta nire miresmena adierazi nahi nioke. Musika beste maila batera eramaten du bere lanarekin. Nik ere frogatu dut



musika komunikaziorako tresna izugarria dela. Gure kontzertuetan sentitzen duzu hori. Publikoa entzuten dugu ero moduan guk sortutako kantuak abesten. Kantu horiek etxean sortzen ditugu, bakarrik, giro intimoan, eta gero jendeak barru-barruan sentitzen dituela ikustea haluzinagarria da. Abestiek beste dimentsio bat hartzen dute.

Sentimenduez, emozioez eta pertsonen arteko komunikazioaz ari gara hizketan. Horrek guztiak osasunarekin lotura duela esan daiteke. Do Re Ni egitasmoaren barruan, zahartzaro aktiboaren gaineko ikerketa bat ere gidatu zenuen iaz, Xabier. Musikak 60 urtetik gorako pertsonen bizi kalitatea, egoera mentala eta egoera kognitiboa hobetzeko eskaini ditzaken aukerak aztertzea zuen helburu ikerketak. Zer nolako emaitzak bildu zituen?

X.L.: Niretzat esperientzia hura zoragarria izan zen. 85 boluntariok parte hartu zuten ikerketan, eta dantza, kantua eta antzerkia uztartuz, ikusizun bat prestatu genuen. Asmoa zen sei hi-

labetean egitea prestaketa prozesu hori; alegia, pertsona horien burmuina sei hilabetez estimulatu nahi genuen, horrek eragin zitzakeen onurak neurtzeko.

Hasieratik, bagenekien denbora tarte hori oso laburra zela. Izan ere, neurologoek diotenaren arabera, gutxienez bost edo sei urteko estimulazioa beharko litzateke garunean aldaketak antzeman ahal izateko. Zoritxarrez, espero baino denbora gutxiago izan genuen ikerketa gauzatzeko, izurriteak bete-betean harrapatu gintuelako. Azkenean, estimulazio fasea bost astekoa izan zen; hau da, boluntarioek, bost astez jardun zuten entseguak egiten. Beraz, ez genuen espero ikerketaren emaitzetan datu esanguratsuak topatzea, eta zenbakietan ez zen ezer handirik azaldu, baina egon ziren aldaketa txiki batzuk. Horri balio handia ematen diogu. Alegia, musikoterapia bost astez bakarrik aplikatu zela kontuan izanda, ikaragarria da burmuinean detektatutako hobekuntza txiki horiek gertatu izana.

Izan daiteke guk detektatuko onura horiek kasualitateagatik agertu izana, eta ziurtatzeko, berriro metodo zientifikoa aplikatzea gustatuko litzaiuke. Hau da, ikertzen jarraitzea.

Osasunari lotuta, Mikel, hedabideetan hitz egin izan duzu duela bi urte gainditutako minbiziari buruz. Sendatze prozesuan zehar, musikak zer nolako papera jokatu zuen?

M.K.: Minbizia gogor erasotzen eta tratamendu gogorrak hartzen ari nintzen uneetan, ez nintzen ezertarako gai. Gitarra alboan izaten nuen, baina ez nuen jotzeko indarririk. Momentu horietan, nire argazkiak eta diskoak ikusten nituen, eta Mikel Anestesia izatetik oso urruti nengoela iruditzen zitzaidan. Nahikoa nuen egunero esnatu, jaiki eta aurrera jarraitzearekin. Arrotza zitzaidan musika munduarekiko guztia, beste mundu batean sartu ninduen gaixoaldiak.

Hilabete gogor haietan, Iñigo Muguruzaren heriotza ere kolpe galanta izan zen niretzat. Hari omenaldi bat egiteko ideia izan zuten lagunek, eta ordura arte, nik ez nituen baxua eta gitarra ukitu ere egin. Negu Gorriakeko kideek bazuten nirekiko kezka, gaixotasunari buelta ematen hasi nintzen arren, artean pattal nengoelako. Une hartan gauza bitxia gertatu zi-

tzaidan: indar berezi bat sentitu nuen aurrera egiteko; ez dakit, agian Iñigok bidaliko zidan beste aldetik...

Baxua jotzeko gai nintzela ikusita, Iñigoren omenezko kontzertua eman genuen Bilboko Kafe Antzokian, eta oholtza gainean 25 urte gazteagoa sentitu nintzen, oso indartsu. Esperientzia haren ondotik, musikarako grina berreskuratu nuen, eta Anestesiarekin entseguak egiteari ekin genion. Beraz, une gogorrenetan ez, baina gaixoaldiari buelta ematen hasitakoan, musikak asko lagundu zidan aurrera egiteko.

Bukatu aurretik, Manolo Urbietaz galdegin nahi dizuet. Hari buruz aritu zarete hizketan elkarriketarako eseri baino lehen. Aipatu duzuenek, hura aspaldi ohartu zen heziketarako musikak eskaintzen zituen aukerez.

X.L.: Zarauzko Ikastolako lehen promozioiko irakaslea izan zen Manolo. Musika umeak hezteko erabiltzen zuen, intuizioz seguruenik. Abestiak asmatzen zituen haurrekin Europako ibaiak edo hiriburuak ikasteko, ikaragarria zen. Nire ustez, gizon hura aurreratuegia izan zen bere garairako.

Manolorekin ibili ziren lehen haurren artean, gela berean, bi futbolari profesional eta Andoni Egaña zeuden. Kasualitatea ote da? Musikak presentzia oso handia izan zuen ume haien heziketan, sekulakoa, eta nire ustez, horrek eraginen bat izango zuen haiengan. Kantuz gauza asko egiten zituzten ikasgelan. Zoritxarrez, hori kontra etorri zitzaion Manolori: umeek kantuan beste ezer ez zutela ikasten pentsatzen zuen jendeak.

M.K.: Nik ere ikaragarri miresten nuen Manolo, nire irakaslea ere izan zen. Urte batzuk Antoniano ikastetxean egin nituen, fraile eta sotana ilun artean, dena gaztelaniaz: 'pecados naturales', 'sobrenaturales'... Giro iluna zen. Aurretiko, Manolo izan zen gure irakaslea, eta mundu ilun hura koloretsu bihurtu zuen. Errezatetik kantu dibertigarriak abestera pasatu ginen. "Hau ere eskolak hartzea ote da?" errepikatzen nion neure buruari. Primeran pasatzen genuen.

Duela urte gutxi, Manoloren omenezko diskoa koordinatzeko eta nire estudioan grabatzeko aukera izan nuen. Punta-puntako artistekin osatu genuen 'Bakarrik eta libre' diskoa. Ma-



nolo ikaragarri emozionatu zen entzun zuenean. "Rockeroak ni omentzen...", esaten zuen barrez.

X.L: Manoloren lan egiteko moduak erakusten du musika beste hainbat esparrutan trebatzeko erabil daitekeela. Alemaniako futbol talde ezagun batean, esaterako, musika bidezko estimulazioak egiten dituzte jokalarien errendimendua hobetzeko.

Ez dugu benetan ezagutzen musikaren potentziala. Rafael Yuste neurobiologo ezagunarekin elkartu nintzen behin, eta garai batean penizilinarekin gertatu zenarekin alderatu zuen musikarekin gerta litekeena. Penizilina iraultza ikaragarria ekarri zuen haren potentziala zukutu zutenean; ordura arte, baina, ez zuen izan beste munduko garrantzirik.

Litekeena da, urte batzuk barru, musikarekin ere gauza bera gertatzea, eta bere erabilera

gizarteko alor desberdinetan modu sakonagoan aplikatzea. ■



Ikusi eksklusiban Mikel Kazalisi eta Xabier Lizasori egindako elkarrizketa QR kodea eskaneatuta.



Desnibela 188 m
Zailtasuna ●●●●●
Luzera 7,7 km
Denbora 1 ordu eta 30 minutu

Erreferentziak
0.00 Herriko plaza
0.10 San Martin ermita
1.00 Antillako hondartza
1.30 Herriko plaza



ITSASOAREN ETA LURRAREN OREKA

MIREIA GALARZA BASTIDA

Oriorekin pentsatuta, burura datozen lehen elementuen artean dago itsasoa. Herriak baditu, ordea, itsasotik oso gertu bisitatzeko moduko beste hainbat txoko ere. Horietako bat da Itxaspeko ibilbidea. Zazpi kilometro eta erdi pasatxo ditu, eta ez da 200 metroko desnibel positibora iristen. Beraz, aproposa da edozeinentzat, baita familiako gaztetxoekin egiteko ere.

Orioko plazatik abiatzen da ibilbidea, San Nikolas kaletik, izen bereko elizara iritsi arte. Bertan, Goiko Kaletik barna, eta Pilliku plazatik pasata, goraka jarraitu behar da. Izatez, hori da ibilbideko aldapa nabarmenetakoa. Pixkanaka-pixkanaka, Orioko hilerria pasata, San Martin ermitara iritsiko da mendizalea, eta handik aurrera jarraituta, A-8 autobidera doan errepidearekin egingo du topo. Kontu handiz tunel txikia pasa, eta harribidetik goraka jarraitu beharko du ibilgunea mendizaleak, zebrabidetik pasa eta aldapan gora jarraitzeko. Handik gutxira, bidegurutze bat dago.

Eskuinekoa Kukuarriko bidea da, baina kasu honetan, Itxaspeko ibilbidea egiteko, ezkerreko bidea jarraitu behar da. Puntu horretatik aurrera, zuhaitzez babestuta dago ibilbideko zatia, baina badago begiratoki eder bat ere, atsedena hartu nahi duenarentzat. Handik aurrera, maldan behera jarraitzen du ibilguneak, Itxaspe baserriaren aldamenetik, itsasoko ikuspegi paregabeekin. Hori da, hain zuzen, itsasora begira Orion dagoen

baserri bakarrenetako bat. Handik beheraka jarraitu, eta, konturatzerako, Antillako hondartzan amaitzen da ibilbidea. Urtearen garaia arabe-ra, itsasoan bainu bat hartu edo inguruko tabernetan trago bat hartzea onena!

Motzean

Lau geldialdi

- Bariko San Nikolas eliza
- San Martin ermita
- Itxaspe baserria
- Antillako hondartza

Nola iritsi

- Garraio publikoan: Zarautz nahiz Zumaiatik autobusez zein trenez irits daiteke Oriora. Garraio publikoak utzitako geldialdietatik ez oso urrun dago ibilbidearen hasiera.
- Autoz: Eskualdeko beste herrietatik, Azpeititik edo Zestoatik, esaterako, autoz joan daiteke Orioraino. Uda sasoian joanez gero, TAO zerbitzua egongo da martxan, beraz, ordaindu egin beharko dute autoa herrigunean uzten duten herritarrek. ■



Ikusi eskusiban Xabat Olaizola eta Sara Peña Orioko bizilaguna txangoan, QR kodea eskaneatuta.




TELEBISTAN ERE

GUKA!
erto



NON DAGO UZTARRIA?



Lehiaketan parte hartzeko aurkitu aldizkarian Uztarrria pertsonaia eta bidali erantzuna lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara urtarilaren 21a baino lehen. Bazkidearen izena eta telefono zenbakia zehaztu behar dira.

Saria: Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta.

Abenduko Uztarrria aldizkarian Uztarrria pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 45. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta Maje Gurrutxaga bazkidea izan da irabazlea.



URDAIAZPIKO,
HESTEBETEAk eta GAZTAK

Etxeko berezitasuna:
EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOA



Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damazo Azkue 6
AZPEITIA

"Urte oso oparoak bizi izan zituen automobilismoak Euskal Herrian"

IÑAKI ALBERDI PILOTUA

Iñaki Alberdi pilotuak ibilbide luzeko esperientzia du. Gaztetxoa zela hasi zen autoen munduan murgiltzen, eta oraindik ez du handik ateratzerik lortu. Modalitate desberdinetako lasterketa ugaritan parte hartu du, eta garaikur asko eskuratu ditu. Tailerrean ere ordu luzeak igarotakoak da.

Testua: **Maialen Etzaniz**. Marrazkia: **Olatz Alkorta**. Argazkiak: **Maialen Etzaniz eta utzitakoak**.

Jende ugarik ezagutzen du Iñaki Alberdi pilotua Azpeitian, ia bizitza osoa baitarama ralliesprint, rally eta igoeretan parte hartzen. Bere ibilbideaz eta egungo egoeraz solasteko elkartu da Uztarría Alberdirekin, horren kuttuna duen tailerrean.

Hastapenez galdetuta, haurra zen garaietara egin du jauzi: "Betitik gustatu izan zait bizikleten, motorren eta ibilgailuen mundua. Eskolarako gogo gutxi nuen, eta 12 urterekin lanean hastea erabaki nuen. 12 urte nituela mekanikari lanetan hasi nintzen tailer batean. Horrela hasi nitzen autoen munduan murgiltzen. Gainera, Urrakiko Igoera egiten zen Azpeitian, eta proba ezaguna zen. Gertutik bizi izan genituen lasterketa haiek, eta nahi gabe ere, odola berotzen zitzaigun". Dena den, ikasitakoa eta ikusitakoa nondik datorkion aipatu nahi izan du: "Joxe Labaka *Xague* pilotua izan da gure maisua, maisu handia. Lehen ona bazen, orain hobe da".

12 urterekin auto lasterketak ikusi bai, baina horietan parte hartzerik ez zuen izan Alberdik; 16 urte betetzean ekin zion probetan parte

hartzeari. Orduan, gazteek bazuten adin horrekin probetan izena emateko aukera, "beste garai batzuk" baitziren. "Sasoi hartan, autocross piratak antolatzen ziren, eta horietako batean parte hartu nuen 16 urterekin. Proba haiek ez ziren legalak, baina auzoetako festetan ez zegoen horrelakoak antolatzeko arazorik". Adin nagusira heldu zenean eman zuen izena aurreneko lasterketa ofizialean, eta orduan hasi zen gidariak oraindik bukatu ez duen ibilbidea. "18 urte egin nituen urtean bertan, Jaizkibel, Urbasa eta Arrate egin nituen asfaltoan. Etxekoek beldurra zuten, asfaltoak bere arriskuak baititu. Hori dela eta, asfaltoko lasterketak utzi, eta autokrosaren bidea hartu nuen. Autokroseko buggya prestatu eta lasterketa ofizialetan parte hartzen hasi ginen, hasieran Euskal Herrian, eta ondoren, Espainian". Euskal Herrian lau aldiz izan zen txapeldun, eta Espainian hiru aldiz.

1999an, buggya utzi eta asfaltorako autoetan trebatzen hasi zen Alberdi, rallyetan parte hartzen, "probatzeko". "Ondo ibili ginen, baina hainbat matxura ere izan genituen, eta denborarekin kotxe handiagoa ekarri genuen: Seat Ibiza Kicker bat. Urte erdia egin genuen

IÑAKI





harekin. Kotxe hura salduta, World Rally Carretako Ford Escorta ekarri genuen, Espainiako Txapelketan parte hartzeko. Lehia handia zegoen, maila handiko autoak zituzten beste pilotuek. Bi urtez ibili ginen modalitate horretan, baina garestia zen, laguntza gutxi genituen, eta azkenean, autoa saldu nuen. Orduan erosi nuen Megan Kickerra, asfaltarako".

Prestaketa eta babesa

Modalitate desberdinak daude automobilismoaren munduan, eta horietako bakoitzak "zerbait" duela dio pilotu azpeitiarrak. "Igoerak oso motzak dira, baina oso gustura ibiltzen naiz horietan. Gainera, ez da denbora asko behar igoerak prestatzeko. Rallysprintak ere gustatzen zaizkit, luzeagoak dira, eta kopilotuarekin egin daitezke. Rallyak, aldiz, ez zaizkit hainbeste gustatzen", dio. Hala ere, urteetan zehar horietan denetan parte hartu du azpeitiarrak, baita erakusketa ugaritan ere.

Zenbaitetan pluralean hitz egiten du Alberdik, eta arrazoiak galdetuta, kopilotuak ekarri ditu gogora: "Beti kopilotuak izan ditut aldamenean, eta denak oso onak, ez daukat aitzakiarik: Pedro Tobar, Jorge del Cid, Nerea Odriozola, Beltza... sekulako babesa izan dira niretzat". Autozaleek ondokoengan aurkitzen dute babesa, baina kirolak baditu hainbat zailtasun; esaterako, entrenatzeko ezintasuna. "Gaur egun entrenatzeko zailtasun handiak ditugu. Autoak errepidean prestatzea komeni izaten da, eta gu

autora egitea, baina horretarako aukera ematen duten lekuak falta dira. Lehen errazagoa zen hori; poligonoan ibiltzen ginen, eta ez zen ezer pasatzen. Gaur egun matrikulatutako autoekin ere arazoak izaten ditugu, eta askotan lasterketetan probatzen ditugu ibilgailuak aurrenekoz".

Urte oparoak, ugari

Gaur egun probatik probara ibiltzen da Alberdi. Azken urteetan kirolak "beherakada" izan duela nabaritu du, batez ere, zaletasunari dagokionez. Izan ere, urte oparoak bizi izan zituen hark, Euskal Herrian zaletasuna nabaria zen garaian, hain zuzen. "Autoetarako zaletasun handia zegoen", gogoratu du: "2000. urtearen bueltan izugarrizko zaletasuna eta maila zegoen Euskal Herrian. Txus Jaio, Klaudio Aldekoa, Xanti Artetxe... kotxe oso onak zituzten horiek, eta

Iñaki Alberdi

- **Jaiotze data:** 1965eko abenduaren 30a.
- **Ikasketak:** Oinarrizko ikasketak.
- **Lanbidea:** Obreten askotariko lanak egiten ditu.
- **Pilotua ez banintz...** Mekanikaria izango nintzateke.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Tailerrera joan eta auto artean ibiltzea.



gidari bikainak ziren". Alberdiren arabera, 1998tik 2008 aldera arte "urte oparoak" bizi izan zituzten, eta orduan "sekulako maila" zegoela adierazi du. Hori bai, gaur egun ere "maila handia" dagoela nabarmendu du.

Gidariak dio lehengo argazkiak ikusita nabaritzen dela orain zale gutxiago dagoela: "Lehengo argazkietan jende mordoxka ikusten da errepide ertzetan, lasterketak ikusten eta gidariak animatzen. Azken bi urteotakoak ikusita, aldiz, lehen Andaluzian izaten ziren lasterketak etortzen zaizkit gogora. Jende gutxi joaten da orain". Pandemiak beherakada horretan eragina izan duela uste du, hainbat arrazoi tarteko; besteak beste, arrazoi ekonomikoak. "Jende asko desanimatu egin da, eta azken lasterketetan uste baino parte hartzaile gutxiago izan dira". Dena den, pixkanaka lehengora itzuliko diren esperantza du Alberdik.

Lagun-Artea eskuderiak urte luzez egindako lana azpimarratu du azpeitiarrak, bere

ibilbideari erabat lotuta dagoela iritzita:

"Horrelako eskuderia bat hemen izatea oso garrantzitsua da. Zenbat lasterketa antolatu dituzten... Horiei esker aritu gara urteetan. Ezin imajina daiteke zenbat lan egin duten probak antolatzen; txapela kentzeko moduko lana egin dute. Segi dezatela horrela, haiek egiten ez badute, ez baitugu lasterketarik izango inguruan".

Alberdik oraindik ez du auto gidari ibilbidea amaitzeko asmorik, nahiz eta aitortzen duen ez duela gaztetako grin bera. "Jende asko izan dut babesa ematen, eta esango nuke horrek eman didala jarraitzeko indarra. Gaur egun ez da gauza bera, urteak ez dira alferrik pasatzen, baina oraindik umee bezala gozatzen dut autoa hartutakoan. Lasterketen gauzarik onena lagunartea da, aurrez egindako lana, ondoren egiten diren afariak... Ez dakit horiek gabe bizitzen asmatuko nukeen. Gainera, ez dakit zer gustatzen zaidan gehiago, lasterketetan parte hartzea edo tailerrean auto artean ibiltzea". ■■■

ELURRA MENDIAN

Zerbat animalia ikusten dituzu?



Sudoku

[Pini sudoku bakoitzeko letra, dagokien tokian. Gogoratu haki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta lau kiko area bakoitzeko.]



ZOPA ala POZA?

A			Z
		P	
	Z		
O			

B			I
L		B	
	A		

BLAI ala BILA?





ZAPI ala AZPI?

A	P		
		A	
			I
		Z	

DOMINO ZATIA

Bete itzazu fitxetako espazio zuriak, domino zati hau zuzena izan dadin.





IZEIA

- Erreparatu Gabonetako zuhaitz honen apaingarriei. Bola guztiek dute pareak, salbu eta batek. Zein da?
- Zein ederrak diren elurrezko panpinak. Zenbat ikusten dituzu? Eta zenbat Olentzero?

Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

Hiltegi zaharreko oroimena, bizirik

TESTUA: **MAILO OIARZABAL**

ARGAZKIAK: **MAILO OIARZABAL ETA**

UTZITAKOAK

Parrokiako atzealdeko hormetan antzeman daitezke oraindik elizako eraikinaren kontra altxatzen zen Azpeitiko hiltegi zaharraren azken arrastoak. Pare bat marka bertikal dira, ez oso nabarmenak, baina Joxe Arregi *Lopeneren* (Zestoa, 1966) eta Xipri Aranberri *Azketaren* (Zestoa, 1962) begiek erraz ikusten dituzte, eta haietatik abiatuta hiltegia nondik nora zabaltzen zen eta haren barrunbeak nolakoak ziren azaltzen hasi dira, eskuekin eta pausoekin, airean, lurrean eta memorian bien lantokia izan zena berreraikiz. Hiltegiko azken lantaldeko kideak izan ziren Lopene eta Azketa, Antonio eta Joxe Astigarraga anaiekin batera. "Marka dagoen horretan kamioientzako garajea zegoen. Haren segidan zegoen ukuilua, eta gero pabilioi luzea, hiltegia bera. Eta, haruntzago, aparte, txerriak hiltzeko lekua. Arkumeentzako ere beste lokal txiki bat zegoen; nik ez nuen ezagutu, baina garai batean zaldiak hiltzen omen zituzten han", kontatu du Lopenek, dagoeneko existitzen ez den eraikinaren barruko espazioaren antolakuntza nolakoa zen azalduz.

1988ko otsailean itxi zuten parrokia atzean, Txaribarko Errebaletik Soreasu auzora doan bidean, zegoen hiltegia. Beste hemezortzi urte iraun zuen zutik eraikinak, 2006ko maiatzean eraitsi zuten arte; XX. mendearen hasierako eraikina zen, eta mendea betetzear zela eraitsi zuten. Gaur egun Soreasu antzokia dagoen orubearen zati bat hartzen zuen hiltegiak; hain zuzen ere, Soreasuko kulturgunea eta inguru berriua eraikitzeko bota zuten hiltegia, Soreasu zinema zaharra eta inguruko beste eraikin batzuk bezala.

Udal langileak

Beste herri askotakoak bezala, Azpeitiko udal hiltegia zen, eta udal langileak, funtzionarioak, ziren mataderiko beharginak. Bi zestoarrak oso gazte hasi ziren hiltegietan lanean. Lopene 16 urterekin hasi zen Azpeitiko hiltegian, eta hamasei urtez egin zuen lan han, itxi zuten arte. Azketak bi urte eta erdi egin zituen Azpeitian, baina

**"LANGILEON ARTEAN
GENEUKAN GIRO
HURA EZ ZEGOEN
DIRUAREKIN
ORDAINTZERIK"**

aurretik Azkoitiko hiltegian aritua zen. "Etxean txerria hiltzen zutenean urrutira joaten nintzen ihesi, atera kontuak", dio. 12 urterekin, ordea, "eskolako gogorik ez", eta Azpeitiko lanak bukatuta Zestoa hango harakinentzat txahalak hiltzera joaten ziren Lopeneri eta Antonio Astigarragari laguntzen hasi zen. Antonioaren anaia Joxek Azkoitiko hiltegian egiten zuen lan garai hartan; Joxeren lankide batek erretiroa hartu zuenean, Azketa gazteari eskaini zioten harekin lanean hastea, eta horrela joan zen Arroarrekakoa Azkoitira, 14 urterekin.

Azpeitiko Udaleko funtzionarioa zen Lopene, eta Azkoitiko Udalekoa Azketa. Azpeitiko hiltegia itxi zutenean, Azkoitiko udal brigadan hasi zen lanean Azketa, eta han jarraitzen du gaur egun. Lopene ere udal brigadan hasi zen, Azpeitian, hiltegia itxi ondoren. Duela 25 bat urte, ordea, udaleko lanak utzi eta harategia ireki zuen herrian. Erretiroa hartuta dago.

Egiazko zero kilometroa

Txahalak, txerriak, arkumeak eta antxumeak hiltzen zituzten Azpeitiko hiltegian. Harakinek Azpeitiko eta inguruko baserritarrek in egiten zuten



Joxe Arregi *Lopene* eta Xipri Aranberri *Azketa*, hiltegi zaharra zegoen tokian. MAILLO OIARZABAL

tratu; behar zituzten abereak erosten zizkieten, noizko behar zituzten zehaztuta, eta data horretarako haragia prest izateko eramaten zituzten abereak hiltegiara baserritarrek. Zestoarrek diote beraiek hiltegian lan egin zuten sasoiari inguruko herrietan baino haragi eskari handiagoa izaten zela Azpeitian. "Gaur egun baino harategi gehiago zeuden orduan Azpeitian, alde handiarekin, gainera", dio Azketak. Haragia jateko ohitura oso hedatua zegoela azaldu du: "Txuleta jateko jatetxeak ere gaur egun baino askoz gehiago zeuden orduan Azpeitian. Edozein egunetan txuleta jaten zen orduan aste barruan. Gazteen jateko ohiturak ere asko aldatu dira". Ildo beretik hitz egin du Lopenek: "Garai

hartan Aitzakira ere ba al dakizu zenbat txuleta joaten zen? Kanpotik etortzen zen jendea txuleta jatera: Aitzakira, Gerrinera...".

Astelehenetik ostegunera egiten zuten lan hiltegian. "Astelehen, astearte eta asteazkenetan txahalak hiltzen genituen, ostegunetan txerriak, eta ostiralak jai izaten genituen, normalean. Asteazkenetan egiten genuen lan, baina bai lana egin ere", azpimarratu du Lopenek. "Ekartzen ziguten ganadu dena hiltzen genuen. Hamar txahal etortzen baziren, hamar, eta hogeitaz baziren, hogeitaz. Lan denak bukatutakoan alde egiten genuen. Ez genion orduari begiratzen. Arratsaldeetan, berriz, haragia banatzen genuen harategietara;

Azpeitikoetara, eta Azkoitian hiltegia itxi zutenean, Azkoitikoetara ere bai. Egiatzko zero kilometroko haragia hura zen, ez oraingoa", gaineratu du. "Lantegi gogorra" zen hiltegiakoa Lopeneren esanetan, "eta aurrerabiderik batere ez zegoen, dena atzaparrekin egin behar"; "destajuko lana", Azketak dioenez. Gabon aurreko egunak izaten ziren lan gehieneko urteko egunak. Haietako bat bereziki gogoan dute mataderiko langile ohiek: "Goizean sei-zazpi txahal, gero beste sei-zazpi bat txerri, eta ondoren, 299 arkume eta antxume. Goizeko zortzi eta erdietan hasi eta hiru eta erdietan bukatu genuen narrutzea. Patxorenera joan ginen bazkaltzera, eta itzuli ginenean ezin ezer ukitu,



Hiltegiko azken lantaldea: Xipri Aranberri, Modesto Arruti, Joxe Astigarraga, Joxe Arregi, Inazio Otamendi eta Antonio Astigarraga.



Hiltegi zaharraren eraikina, kanpotik.



Txahalak, hiltegiko ukuiluan.

atzaparrak gogor-gogor eginda, txikituta". "Nik arkumeari hartu nion nazka...", dio Lopenek.

Saninazioetan abere hilketarik ez zen egiten normalean udal hiltegiari, baina bestelako lanak izaten zituzten. Festetako zezenketetan hiltzen zituzten zezen guztiak, soberakoak barne, hiltegiara eramaten zituzten, eta haien haragia banatzen zuten hiltegiako langileek herriko hainbat harategitara. "Hil ahala ekartzen zituzten zezenak hiltegiara. Nuarbeko Joxe Luis Gurrutxagak ekartzen zituen gehienetan, kamioian". Zezenketa arratsaldeetan, normalean Lopenek eta Antonio Gurrutxagak egiten zuten lan, batek zezen plazan eta besteak hiltegiari. "Zozketa egiten genuen, zeinek zer lan egin. Hamarretik bederatzitan nik galtzen nuen zozketa, eta hiltegiako lana tokatzen zitzaidan. Zezen plazakoa lan arinagoa zen", dio Lopenek. "Eta, gainera, zezen plazakoak

zezenketak ikusteko modua ere izaten zuen", gaineratu du Azketak.

Zezenketa bakoitzean hildako zezenen haragia hurrengo goizean banatzen zuten harategietara. Harakinak Silvestre Otamendi alkatearekin haserretu ziren urtekoa gogora ekarri du Lopenek: zezen haragia hartzeari uko egin zioten denek, eta Berdura Plazako Txapa harategikoak hartu behar izan zuen, gogoz kontra eta bere desesperaziorako, 23 zezenen okel guztia.


"Pena galanta"

Udal hiltegiak ixten joan ziren pixkanaka 1980ko hamarkadan, joera eta eredu berrien aldeko apustua tarteko, eta Azpeitikoari ere ixteko txanda iritsi zitzaion. "Pena galanta hartu genuen, egundokoa, itxi zutenean. Elkarrekin oso ondo konpontzen ginen", dio Lopenek. Azketak "oroitzapen on asko" dituela dio, eta lankideen arteko harremana goraitatu du guztien

gainetik: "Langileon artean geneukan giro hura ez zegoen diruarekin ordaintzerik".

Udal hiltegien desagertzearekin kritiko dira oraindik ere bi lankide ohiak. "Mataderiak ez zirela errentagarriak esaten zuten. Baina, horrela hasita, udalak ematen dituen beste zerbitzu askori buruz ere gauza bera esan genezake. Udalak ematen zuen beste zerbitzu bat zen hiltegiarena", arrazoitu du Lopenek. Osasunaren "aitzakiarekin" ere ez datoz bat. "Iraetako hori ireki nahi zuten, eta nire errezeloa da hortik joan zela kontua. Baina hemen zegoenaren aldean zikinkeria handia dago han, e", dio Lopenek, eta bat dator Azketa iritzi horrekin: "Udan ez dago hiltegi hartara joaterik, egoten den kiratsa... Lotsagarria".

Elkarrizketa bukatuta, hiltegi zaharrean bizitakoak oroitzen jarraitu dute lankide ohiak. Oroitzapen onak eta aro haren bukaerak sortu ziren minaren oihartzunak ere hor diraute. ■



URRATEGI
INTERIORISMO
barne diseinua

Arretxe 9
20730
Azpeitia
943-85 72 44

Arrogueta 27
20600
Eibar
943-85 72 44



www.urrategiinteriorismo.com

dica www.dica.es

Lana eta osasuna



IONE GURRUTXAGA

Goizean iratzargailuaren hots garratzik gabe jaiki, maletak bete, eta munduari bira eman: Parisen gosaldutik laranja zuku freskoa eta baguette xigortu berria hartuz, eguerdian Erromako kaleketan barrena eguzkipean pasieran ibili, arratsaldean Vianan kontzertu batez belarriak goxatu, Greziako irlaren batetik eguzkia itsasoan ezkututzen ikusi eta Berlingo gaueko argiekin liluratu. Ez, aurren ere loteriako haurrek ez dute gure zenbakirik osatu bolatxoekin, eta aberaskumeen bizitza probatzeko itxaron egin beharko dugu oraindik.

Urtero bezala, beraz, egutegi berria zintzilikatu, eta urte berriari zer eskatuko diogun pentsatzeko garaia iritsi da, eta, aurren ere, zerrenda egiten hasiz gero, sekula ez amaitzeko arriskua daukagu: egoera lehengora itzul dadila, familiakoekin eta lagunekin lasai elkartu ahal izateko, inor gaixotzeko beldurrik gabe; hilabete amaieran larritasun handirik gabe bizitzeko aukera izan dezagula; gertuko eta urrutiko lurraldeak ezagutzeko eta haiez gozatzeko parada izan dezagula; noizean behin gutizia batzuk lortzeko moduan izan gaitezela... Bi hitzetan laburtuta, gure aitona-amonek esan ohi zuten moduan: urte berrian ere, lana eta osasuna.

Izan ere, sarri askotan ametsek itsutu egiten gaituzte,

eta ahaztu egiten zaigu oinarritzko bi elementu horiek gure alde ez baditugu ametsak handi horiek txakur ametsak baino ez direla: nola joango gara munduaren beste muturrera osasunik ezean? Eta nola erosiko dugu gutiziarik txikiena egunerokoan babestuko gaituen teiltatupea ordaintzeko lain ez badugu?

Beti esan izan da lana ez dela gauza ona izango, egiteagatik ordaindu egiten baitute. Baina, hala ere, falta dugunean (ez geure borondatez, noski) daukagunean baino gehiago kezkatzen gara. Urte gogorrek ezagutu ditugu herrian, baina badirudi urak beren bidera itzultzen hasiak direla. Hala ere, ezin esan daiteke lan mundura azken urteetan sartu diren gazteek, urte haiek bizi ez, eta bide erraz eta laua izan dutenik. Han edo hemen, jende askok topatu du bizibidea, denean bezala, nahi baino soldata txikiagoarekin, onartzeko modukoak ote diren zailtasun eragiten duten baldintzekin eta, kasu askotan, iraungitze datarekin: bekaldi bat, hilabete gutxiko ordezkapen bat, aldi

**AURTEN, KALITATEA
ESKATU NAHI DUT
GUZTIONTZAT,
KALITATEA LANEAN ETA
OSASUNEAN**

baterako postu bat... Soldata murrizari hurrengo hilean soldatarik izango den ez jakitea gehituz gero, nola antola daiteke etorkizuna?

Halaber, dirurik ez duenaren azken esperantza osasuna izan ohi da, eta osasun horri beti eutsiko diogula sinetsita bizi gara. Baina dagoeneko esana dago bizitza honetara sufritzera etorri garela: zenbat buruhauste eragiten dituen geure edo inguruko norbaiten osasuna kolokan ikusteak. Zorionez, osasun sistema garatu bat daukagu eskura, hark ongi funtziona dezan egunero lanean ari diren profesional onei esker, batik bat. Baina, osasunak halako pisua hartu duen garaiotan, nola uler daiteke egunero euren onena emateko asmoz lanera joaten diren horiek, une gogorrek bizitzen ari direnak goxo eta maitasunez artatzeko ahaleginean ari diren horiek gero eta baliabide gutxiago eta eginbehar gehiago izatea?

Bakoitza libre da urte berriari nahi duena eskatzeko, baina nik argi dut: aurren, kalitatea eskatu nahi dut guztiontzat, kalitatea lanean eta osasunean, lan baldintza duinak izan ditzagun egunero gure onena eman ahal izateko bestelako kezkarik buruan izan gabe, eta, osasunak kale egiten dugunean, zainduko gaituzten horiek ere beren onena eman dezaten gure alde. ■

URTE BURKATZEN TRADIZIOA

URTE BERRIÉ,
ASMO BERRIEK

1. Kirel yago in
2. Juna zaitu
3. Geyo biayun

URTARRILAK 2

BAH,
BIHER HASIKO NAIZ...



EUSKAL ONDARE INDUSTRIALA,
ERAKUSKETAK, KULTUR EKITALDIAK,
BISITA GIDATUAK...
BIZITZAZ BETERIKO MUSEOA.
Parte hartu nahi duzu?



Nondik gatozen ezagutu, nora goazen jakin ahal izateko

Errementarien garaitik XIX. mendera arteko industriaren bilakaera ezagutzeko museo aparta da Elgoibarkoa. Aine bidezko uhal eta polen bitartez osatutako transmisio sistema erabiltzen zuen mekanizazio taller batetako giroa zintzoki erreproduzitzen du. Museo bizia da; makina guztiak martxan ikus daitezke. Estatuaren bukara.

Ez galdu esperientzia ikusgari hau bizitzeko aukera!

Bisitak

Bisita libre, gidatua, audiogidarekin,
saldarekin, ikastetxeentzat egokikua,
enpresentzat, familientzat, ...





Antzinako ogibideak



Galtzar dauden antzinako ogibideen zuzeneko erakustaldiak.

Kultur ekitaldiak



Euskal Herriko arte disiplina ezberdinak: kontzertuak, hitzaldiak, dantza ikuskizunak...

Zientzia eta teknologia tailerrak



10-14 urte bitarteko gazteei zuzendutako Biziabe tailerrak, eronika errealak.




Espazioen alokairua

Museoaren espazioa erabilera antzerkoak alokatzeko aukera dago: tailerrak, ekitaldiak, aurkezpenak, ikusentzumenak, telebista saioak, etab. Lehiak, parranda, nortasun proposa zuzenean.

T. 943 74 84 56

Hakina Erreminta Museo
Bilgaitz: Gipuzkoa
www.museoa.eus
museoa@museoa.eus





Begirada bat joan denari

Urte berrian sartzearekin batera, atzean gelditu da 2021a. Sasoi honetan, ohikoa izan ohi da joandakoari begira jartzea, eta ariketa hori egin du hedabide honek. Joan zen urtea ere COVID-19ak baldintzatu zuen, baina izurriari lotutakoak ez ezik, bestelako gertakariak ere izan ziren Azpeitian. Horietako esanguratsuenak bildu ditu Uztarriak, hilabetez hilabete.

Testua: **Julene Frantzesena eta Ihintza Elustondo.** Argazkiak: **Uztarria.**



FESTARIK GABEKO URTEA

2021. urtean ere, herritarren artean festa gogoia nagusi izan zen arren, ezin izan ziren herriko jaiak nahi bezala ospatu, izurriak eraginda. Zenbaitek, hala ere, umore ona izan zuten lagun egun berezienetan: San Sebastian bezperako helduen danborradaren faltan, esaterako, etxeko balkoietan jo zuten danborra batek baino gehiagok. Era berean, San Sebastian bezperan aurkeztu zuten Paola Motok zuzendutako eta Alaitz Olaizolak idatzitako gidoia duen *Amamaren danborra* dokumentala.



IRURENA, SUTAN

Otsailaren 26an, 22:00 aldera, sua piztu zen Irurena lantegian. Ordurako ez zegoen langilerik han, eta beraz, ez zen inor zauritu. Suteak kalte material handiak eragin zituen arren, hasieran uste baino txikiagoak izan ziren. Suhiltzaileen arabera, lantegia "ondo prestatuta" zegoen halako gertaerei aurre egiteko, eta biltegia erabat kiskali zen arren, gainontzeko eremuak ez ziren kaltetu. Beraz, bulegoak eta fabrikaziorako eremua ez zituen kiskali suak.



CORRUGADOSEN HARIRA, ZALAPARTA

Corrugadosen irekieraren gaiak sekulako zalaparta piztu zuen iaz herrian. Martxoan herriratu zen gaia: hil horren 7an kaleratu zuen EAJren udal taldeak gutun bat Uztarrarian, alkateari Corrugadoseko jarduera arriskuan ez jartzeko kemena eskatuz. Ordutik, aldeko nahiz kontrako iritziak nagusitu dira batzuen eta besteen artean. Azpeitiko Udal Gobernuak (EH Bildu) hasieratik esan zuen ez zela posible herriguneko Corrugados martxan jartzea, hirigintza arazoak argudiatuta. EAJk, berriz, hirigintza oztopoak gaindi zitezkeela zioen. Azken hilabeteetan, isilik da gaia.



JUARISTI ISB, URREZKO LEB LIGARA

Apirilean berriro ere Urrezko LEB ligara igotzea lortu zuen Juaristi ISBk. Balentria ikaragarria egin zuen taldeak hilaren 24an Sant Joan Despiko (Bartzelona) Joan Gamper kirolgunean. Bartzelona B taldea menderatu zuen Azpeitiko eta Azkoitiko taldeak, 63 eta 66. Partida estua izan zen; hainbatetan izan ziren markagailuan aurretik bai Bartzelona, bai Juaristi ISB. Txapeldunaren kopa Ibon Guridi kapitainak eta Beñat Heviak jaso zuten.



EKINDAR, ENERGIA AUTOKONTSUMOA SUSTATZERA

Maiatzean aurkeztu zuten jendaurrean Ekindar, Azpeitiko energia autokontsumorako kooperatiba. Egitasmoaren helburua honako hau da: Urrestillako Kaminazpi eremuan kokatuko den plaka fotovoltaikoen baratzearen bidez, eguzkiaren indarra baliatu eta azpeitiarren artean energia autokontsumoa eta burujabetza energetikoa sustatzea. Zabalik dago bazkide izateko aurreinskripzioa.



DINAMOA ETA GAUTENAREN LOKALAK, ABIAN

Dinamo sormen gunea aspaldidanik martxan baldin bazen ere, ofizialki 2021eko ekainean inauguratu zuten. Bertan izan ziren instituzioetako ordezkariak eta sormen arloko hainbat kide. Era berean, ekainean zabaldu zituen Gautenak autismoa duten pertsonentzako eguneko zentroa eta etxebizitzak, Loiolako Inazio Hiribidean. 22 pertsonentzako edukiera du eguneko zentroak, eta bi espaziotan banatuta dago. Bi etxebizitza ere badira han; zazpi logela ditu bakoitzak.



ENPRESA MUNDUKO BI SARI

Gipuzkoako Enpresa Saria jaso zuen Astigarraga Kit Line enpresak uztailean, Enpresa nazioartekotzea kategorian, "bere sektoreak etxeko merkatuan bizi duen krisiari erantzuteko nazioartekotze estrategiatatik eta bere produktu ikuspegia Europako merkatuaren errealitatera eraldatzeagatik". Ez zen enpresa munduan Azpeitira iritsi zen sari bakarra izan; izan ere, Inaxio Uriak jaso zuen azaroan Joxe Mari Korta sarietako bat. Hain zuzen ere, 2008an ETAK tiroz Loiolan hil zuen enpresari zenaren oroimenezko saria haren alaba Mariak jaso zuen.

HERIOTZA SALAKETA

Elkar-ekin taldeak abuztuaren 7an jakinarazi zuen egun batzuk lehenago Luis Enrique Soriano 20 urteko gazteak Azpeitiko enpresa batean bere buruaz beste egin zuela. Handik egun gutxira, elkarretaratzea egin zuten hainbat lagunek plazan, askotariko eragileek deituta. Azaroan, berriz, Sorianoaren kasua epaitegietara eramango zuela jakinarazi zuen ESK sindikatuak.





AGUR, MEDIKUARI

Irailaren 17an hil zen Julian Bereziartua medikua. *Zuriko* ezizenez ezaguna, 86 urterekin zendu zen azpeitiarra. Medikularietan 45 urtez aritua ez ezik, hainbat hedabidetan kolaboratu zuen. Gainera, euskararen alde egindako lana aitortzeko, Uztarria Kultur Koordinakundeak elkarteko ohorezko bazkide izendatu zuen Bereziartua 2008an.



ESKOLA KIROLAREN JARRAIPENERAKO

Azpeitiko Udalaren Kirol Sailak bultzaturiko Gazte Kirol Programa aurkeztu zuten herriko ikastetxeetako nahiz udaleko arduradunek urrian. Programa DBHko ikasleei zuzendutakoa da, Lehen Hezkuntza amaitu ostean "hutsunea" hauteman baitute federatua ez den kirolaren alorrean. Hasi dira dagoeneko lehen saioekin.



PROIEKTU ESTRATEGIKOA

Perdillegi azpieremuan gizarte beharrei erantzungo dien azpiegitura berria egitea adostu dute Azpeitiko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak; azaroan eman zuten horren berri. Juan Antxieta musika eskola eta Udal Euskaltegia kokatuta dauden eraikinaren eta Oktogonoa edo Perretxikoa bezala ezagutzen den eraikinaren eremuan egingo dute azpiegitura berria. Gizarte beharrei erantzuteko zaintza eredu berri bat sustatuko du proiektuak. Bestalde, Perez Arregi plazatxoan dagoen eta Telefonica kokatuta egon zen eraikina ere eraberritzen ari da udala; Udal Euskaltegiaren eta Atzegiren egoitzak egingo dituzte bertan.

MUNDUKO SORBETERIK ONENA

Gelato Festival World Mastersaren munduko finala izan zen abenduan Italian, eta Fernando Alberdiren Mango Ezpeleta izozkiak irabazi zuen sorbete onenaren saria. Harako bidea duela lau urte hasi zuen Alberdik. Bartzelonan txapelketa txiki batzuetan parte hartu zuen orduan, eta horietako puntuazioak tarteko, Espainiako finalera sailkatu zen. Udan jokatu zuen Espainiako finala, eta han, Espainiako Estatuko bi ordezkari hautatu zituzten munduko finalerako; tartean, Alberdi. ■



SOKA LUZEAN



MIEL A. ELUSTONDO

kontzeptua (minuskulaz)

Zerutik jakina da. Hemen nork bere teoriak ditu. Nork bere egia duela, edo nor bere zoroak bizi duela bezain egia da hori. Baina, batzuetan, ez dugu ikusten. Beste batzuetan, berriz, ez dugu ikusi nahi. Nik, egia esan, ez dut granorik entenditzen. kontzeptua. Auzoko farmazialaria euskalduna da. Esango nuke euskaltzalea ere badela. Neurri batean, behintzat, eta gu bezain zoroitsu eta amorratua ez izan arren ere. Bere partea egin du, partez, eta langile euskaldunak ditu botikan. Telefonoz jo, antigeno-testa egiten ote duten jakin nahi nik, eta «farmazia, bai?» erantzun didate, baina sinistuko ez balute bezala, beldurretan bezala. kontzeptua. Ez dut entenditzen. "Esaten hasita, esan ezak pa natural!". Alferrik. Tira, ohetik irten eta farmaziara, delako zomorrotest hori egitera. Eta, ilara libratu denean, nire txanda. "¡Un segundín!". kontzeptua. Farmazialariarena, eta nirea. "Nagusiak euskaraz esango zidan". Kofradiakoak jaso du kandela: "Momentu bat, faborez!". Eta segi, hantxe joan da egin behar zuena egitera. Eta etorri da, eta euskaraz nik, eta euskaraz berak, eta egin dut antigeno-testa berak gozo lagunduta, euskaraz bastante

normal. kontzeptua. Euskaraz egiten du, egin behar duenean. Egin behar ez duenean, gaztelaniaz errazago egiten duenez, gaztelaniaz. Gure txakurrek ardiari baino lehenago hartu diot usaina. Ordu laurden bat egon behar omen dut zain. Egin dut bueltatxo, egunkaria erosi, gurean egunero izaten ez dugun eguneroko ogia ere bai, eta atzera botikara. Hantxe farmazialariak, hiru, euskaldunak hirurak, euskaraz dakitenak, gaztelaniaz erraz. kontzeptua. Eta hortxe etorri zaizkit amildegian behera gure alderdi hegemoniko nagusi sabindarraren, hau dudatan jarriko dugu, diskurtso guztiak, hizkuntza politika guztiak, dirutza guztiak. Ezetz, bada. Zerga bidez bildutako dirua beraiek nahi duten asmoetan dirutza gastatzea, eta nahi ez duten asmoetara limosna bideratzea da errazena. Beste bat da koxka, eta landu behar dena. kontzeptua. Minuskulaz, badaezpada ere. ■

**HANTXE
FARMAZIALARIAK, HIRU,
EUSKALDUNAK HIRURAK,
EUSKARAZ DAKITENAK,
GAZTELANIAZ ERRAZ**

BOTEPRONTOAN



AINTZANE GARMENDIA

Disdirapean

Hango keinu eta zalaparta, hemengo txistu eta algara, inor ilun sentitzen bada jalgi dadila plazara. Arnasa hartzeko betarik gabe sarri, ez da erraza urtarilaren hasiera honetan patxadaz inorekin solastea: "Zemuz aspaldiko? Gabonetako oporretan gatzaren da, ezin hobeto! Ondo pasau zazuela!". Halaxe da, egunean zehar kexak bata bestearen atzetik gure ahotan dabiltzan arren, pentsaezina litzateke egun bereziotan inor ilun senti daitekeenik. Baina barneko sentipenak nola ez dago zertan hitzez adierazi hala, eta ohituretako bat dugu jada "ondo!" erantzutea.

Ohiturak edo loturak, ezin konta ahala ditugunak. Urte berriari eskaerak egitea da horietako bat, eta oraindik lanparatik jeinua irteten gutxik ikusi badute ere, gehienok egiten dugu gure saiakera. Askok sariak, omenaldiak, podiumak... dituzte buruan, beren izena nonbait idatzita uzteari garrantzia emanda. Baina ederra litzateke hainbat urteren ondoren eta izenik gogoratu ez arren, inoiz elkarrekin ibilbide bat egin genuela gogoratzen duenaren begiradarekin topo egitea. Inor gutxik ezagutzen dituen bizipen haiei dagokien garrantzia ematea, elkar argitzea. ■



TiEN21ESNAOLA

ZATOZ
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943-08 03 55 · esnaelek@outlook.com

ikastolak

HEZKUNTZA ERALDATZEN



ikastolenelkartea

azpeitiko
ikastola

ikasberri koop.e.



2022/23 IKASTURTEA
ATE IREKIAK

URTARRILAREN 12AN, ASTEAZKENEAN, 17:30ETIK 19:00ETARA

MATRIKULAZIO EPEA
URTARRILAREN 17TIK 28RA BITARTEAN



Loiolako Inazio hiribidea 26 • 20730 Azpeitia • Tel.: 943-15 12 46
ikasberri@azpeitikoikastola.eus • www.azpeitikoikastola.eus